

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XVI Zenbakia.

1991
Uztaila-Iraila

AURKIBIDEA

	Orr.
Goi-Yakintza. Adin-antze . Urestarazu'tar A.	1
Azkue Aita Semeak aurrez aur bariro. Lino Akesolo.	4
Erritarrei entzuten.	12
Euskerazko Izenak Erdiaroko idazkeran. B. Latiegi.	13
Urtean-Urtetan. Askoan = Askotan. "Kamiñazpi".	19
Aetzen Uskaraz. Josu Cabodevilla.	26
Goi Yakintzaruntz: Irudimena. Urrestarazu'tar A.	33
Esaldi jatorrak. Manu Oñatibia.	36
Euskaldunak Munduan: Xabier. Anes Arrinda,	37
Euskal Ereslari bikaiñak: Rabel. S. O.	45
Edo-ta. P. Berrondo.	48
Erderakadak eta Akatsak. Gaztañaga'tar J.	49
Euskera garbitzen. Arbasoen 1. zaleak.	52
Olerki sariketa. Aita. Onaindia.	54
Elbire Andereño Idaz sariketa.	55
Jesusen billa. Gaztañaga'tar J.	57
Urrats. Olazar'tar Martin.	62
Yanoz-Elebarrietan K. Irakasle. Olazar'tar Martin.	63
Iraultza aurrerakoia, noizko? (Barruko azalean).	
Erderakadak (Kanpoko azalean).	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

IRAULTZA AURRERAKOIA: NOIZKO?

Or gabiltz nundik, zelan eta zer aurreratuko.

Izkuntzan, ordez, trabak nola sortu ta sartu.

Bat, H.

Adierazpen bat:

"HARRIKO HERRI HAU"

Gabriel Aresti'ren olerki liburua, Euskaltzaindiaren arauetara.

Deitura berbera Euskerazaintza'ren arauetara:

"ARRIZKO ERRI AU".

Iru HHH gutxiago.

Iru alperrikako letra gutxiago.

Amalau letratik iru alperrik.

Edo beste era batera azalduta:

100'etik 21,42 alperrik.

Orrek esan nai du:

Paperetan % 21,42 gutxiago.

Ekolojiari mesede. Zetan? Arbola gutxiago ebaki bear papera egiteko.

irarkolako lana: % 21,42 merkeago.

Eta dirua munduan utzita,

EUSKERAZ IKASTEKO ERRAZTASUÑA: 100'tik zenbat?

EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao



GOI - YAKINTZA ADIN -ANTZE

Ona emen gure baitan dugun beste almena, nolabait adimenetik sortzen zaiguna edo oldozmenetik ere edo bietatik; adimenean eta oldozmenean men bana dugu, ta aditz-antzearen bidez men ori egipenetan ari zaigu, edo oldozpenetan be peneaz biurturik; berez, adin-antze men'etik pen'era joaten dala esan dezakegu; ta neuri batean gure baitan asitako oldozmena gureganako eramateko ibili beaf dan bide egokia, guregan ateratzeko ditugun ondorioak zedafitu beat diranean.

Len (Adimenari buruzko lanean) adiña zer dan esan genuen: gauzak eta egipenak, eta gogayak eta oldozmenak ulertzea; adin-antze, beraz, ulertze ori nola burutu dezakegun bidea izan bear da, egiazki. Bide ofen bitartez egokiak diran gogaketak egin ditzakegu burubideetan barna yaduteko; alakotz adin-antzearen bitartez gogaketak eta burubideak egin ditzakegu; argi agertzen da, ofengatik, gure gogo-bizian adin-antzeak duen gafantzia.

Ofa of gizonak duen beste almen aundia, izadian barna berarena bakarik dana, ta beste izaki guzien gañetik ari-izateko egokia zayona, ta bere burua biziaren goikoen matean ikusi al-izateko, bere bakarik adimenduna baita. Gizonaren izakia, beraz, bizian barna izan diteken goié goyeneko malean bizi-izateko sortua dala guztiz garbi agertzen zaigu. Yainkoa'ren antza izateko sorturik, ortan dugu orixe egiztatzeko beste bide egoki bat ere.

Eztakit beti ta guzien aldetik ateman ote dan gure goiko almen ori; baña guztiz aintzakotzat artzea ezinbestekoa dala onartu beaf da. Oldozmenak oldozpenak soferazten dizkigu, baña gero oldozpen oyek gora ta bera erabiltzea beafa zaigu, jafaitzen dugun ondorioraño eltzeko, edo jafaitu gabe erabiltze orek zer emango digun, asmoren bat ala asmo-litsen bat gureganatzeko. Ori adin-antzeak betetzen du ta ortan ikusteko bere egokitasuna ta gafantzia.

Eta ortan be argi agertzen da gizonaren goi-goyeneko berezitasuna, adin-antze-izaki berezia dalarik adieraztean; eztago Ludi'an barna ori adierazi dezaken beste izakirik, eta ofela garbi-garbi azaltzen da gizona izadiaren goyeneko izakia dala, beste guztien oso gañetik eratua.

Ñoski adin-antzearen bitartez ona ala txa a zein dan ondo oar dezake gizonak, egoki ala ezegokia, eder ala itsusia, aundia ala txikia, aldekoa ala aurkakoa, onartzekoa ala astantzekoa, ta abaf oartzea, ots, ikusi,

begiratu, ikasi, bururatu, jakin, ulertu ta adimenak inguratu ditzaken beste azpegi guztiak burutzea. Alakotz, gure gogoan izan ditezken bide guztien zeaf ibili al-izatea. Ora adin-antzearen almena, mugarik gabe bezela agertzen zaigula. Ofa gizonaren baitan dagoen bizi zabala, gogo-bizia dana.

Adin-antzearen bitartez gogoetan egiten ditugu esandako asmo ta azpegi guztien goraberak nolakoak diran ondo ta egoki oartzeko, ta lan ori gure baitan burutzen da bereziki; bai ta aipatzeko ta goratzeko dugu, arean, guzti ori egiteko adin-antzeak duen almena. Gogoetak eta gogaketak dira, egitan, adin-antzearen ari-izateko bideak, eta gogoetan ari-izateko gogaketak egiten ditugu, askotan ain bea ak zaizkigun gogaketak.

Gogo-bizian barna ezinbestekoak dira gogaketak, auen bitartez beaf dan bezela jokatzeko, bide egokienak aurkitzen baititugu. Ofa mail ortan yarduteko gizonak duen almena, bere adin-antzera dana; ta orixe oartzean ere ongienik ikusi dezakegu nolakoa dan gizona izadian barna goigoyeneko izakia. Ñaiz eta siñistuna ez izan betidanik ezagutu du gizonak bere almen aundi ori, ta beraren bidez jokatu du eten gabe yakintza osoa ezagutzeko, ta bere egokitasunerako ongienik ustiatzeko be.

Jakiña, batzuetan eta deitoraga ia dan eraz, bere burua beste izaki guztiak baño goratuago ikustean, afoputza biurtu da gizona, zoritxarez, beste guztia ezesten eta bere izakeraz zearo ifa aintzean, azken mugae-taraño eldu arte, alguztiduna benetan izango balitz bezela, ta ofela ogena egitean. Eta nolako itsukeriaz batzuetan, adin-antzea dala-ta, bere burua Yainkoa legez begiratzeko ere; a o-a o "adin-antze yainkosa" esateko ta onartzeko ausartzean. Orduan uko egiten dio Yainkoa'ri ta gauza ta egipen guztien oñafia adin-antzera dala aitortu du oke ez. Beti a okeriz beterik, ezagupen ororen itu ia adin-antzera dala uste-izan du gizonak, ta adin-antzera bere baitan ikustean, bera da, gizona, azkenez, guztien gain ipiñi nai-izan duena, bere gañetik beste ezer eta beste iñor ez onartzeko.

Osterantzean, apaltasunez ari-izan ezkerro, gogoeta obeak egin ditu gizon zentzundunak, bere almenak nolako mugatuak dagozen ongi atemateko; ta orduan gogaketak bide egokiagoak diranetan barna jokutzen du obeki zentzunezko ta bidezkoak diran ondorio bikañak aurkitzeko. Ofela, bere gogoari egiazko yakintza eskeiñi dizayoke, gentza ta atsedena azkenez berarenganatzeko, ta ortan ikusi beaf da gizonarentzat bidezko jokaera zein dan, adin-antzea egokiro erabiltzean.

Adin-antzea, adimena, oldozmena ta gizonak bere baitan dituen beste almen guztiak bezela, egitan, auxe adierazteko edo begiratu beaf ditugu: egiazko almenak dirala, gogo-almenak, norbaitek ortxe bertan ipiñi dizkigunak. Guztiz argi ta garbi ikus diteke, edonoren aldetik, gizonak berak ori egin al-izan eztuela, ta, bidezkoa danez, egite egokiago dagoela aitortzea ezinbestekoz onartu bea duela. Ofa adin-antzeak, beaf dan bezela erabiltzean, ongienik erakusten diguna.

Adin-antzearen besoak bezela, adinkunde ta adinketa ere ditugu, aren jokera nolabait edatzeko edo, bere almen eta egipenaren antzekoak diranak eta aren erabiltzea efazago ta zabalago burutu al-izateko be. Ez da, alakotz, adin-antzera baka ean ari dan zerbait, berarengandik sortzen

diran bide egoki batzuen zea guztiz edatua azaltzen dana baño, ta gogoetak e uz soferazten dituen ere.


Gafantziduna, benetan, gure baitan ari zaigun adin-antzea, gure biziari argitasun aundiena eman dizayokena. Geyenetan gizonak almen ori ta besteak be, berez erabiltzen ditu, begiak, belafiak eta soñaren beste zentzu guztiak bezela; a itzekorik ez ortan berarentzat. Baña gogo-almenak sakon aztertzen baldin baditugu, ara nun agertzen zaigun gure baitan dugun aberastasun aundi, zabal eta yoria.

Adin-antzeak eman dizaiguke ederki, gizonaren gogo-biziaren neufia, bere baitan sakon ibiltzeko bide egokiena duelarik adieraztean; eta ofela jokatzean aurkitzen du bere nortasuna nolako goi-goikoa dala. Aspaldikoek esakun au erabiltzen zuten maiz: "Ezagutu ezazu zure burua", ta apika, Yainkoa ezagutzeko naya izanezik, ez bide dago gure bizian beste xede oberik; norberaren burua ezagutzea, elburu bikaña, bikañena edo, gizonarentzat, adin-antzearen eske lortu dezakena. Oía bada bein eta befiz nola ikus dezakegun ongienik adin-antzean dugun almen aundia, gogo-almen bikaña, gizonak bere burua goyeneko maifean aurkeztu dezakena.

Gogo-bizian du gizonak bere izakera jatofa, sa itan ikusten edo oartzten ez dana; ta mail ortan ari-izateak dirudi gizonarentzat jokera egoki-ena ta goratuena izan ditekena; ortxe ikusteko be gizonarentzat duintasun goraga iena ere. O en aldean gizonaren beste jokera guztiak oso bean begiratzeko edo dira, ta gizona dan gizonak ez bide du euki bea , betetzeko beste yoran goituago ta oberik. Ba-dakigu gizona gogo ta soñak osotzen dutela, ezberdiñak diran bultzapenetan ari diranak; baña lenengo da, enurarik gabe, gaña artu beaf duena, gizonaren nortasuna era egokienean eratzeko.

Ortxe, jakiña, bere gogoari dagozkion beste azpegi guziak bezela, gizonari bere adin-antzeak erakutsi beaf diona. Beraz, adin-antzera dugu gizonak yoran aundienaz erabili bea duen bide yaukala.

U estarazu'ta Andoni





AZKUE AITASEMEAK AURREZ AUR BARRIRO:*

Parnasorako Bidea eta Poesía Bascongada

Amar urte da Azkue aitasemeen inguruan artikulu bat idatzi nebala KAR-MEL aldizkariaren orrietan. Gure artean indar artzen joiazan alan-olango eritxi batzuk salatzen nituen. Euren buruak aztertzaile artez eta zeatzat eukezananen uste-muste batzuk itxurazko oiñarririk ez eukela naikoa argi itxi nebalakoan nago.

Azkue semeari, bere aĩtaren goiti berako aldaketak egin eutsezala-ta, egin eutsoen kritikak ez eukan, euki be, oiñarri sendorik, ez urrik emon be. Kritikariak oker ebiltzan; iturri geiago aratu eta aztertu bearra euken, itsu-itsuan iñoren pekatuak astintzen asi baiño len; aukeran eukezan iturrietara joaten be ez eben jakin; pekatu larriegia kritika-lanean sartu gura dauanarentzat, eta larriagoa, norbaiten aurka arrika badator.

Bide oker ori artzea 1959tik dator. Urte orretan agertu zan, Ñikolas Alzola zanak aurkezturik. Azkue aitaren *Dies /rae*, euskeraz, Bizkaiko Aldundiaren Bibliotekan kopiatuta edo: 1861n euskeratzaillak berak Bonaparte Printzeari bialdutako kopia ei zan, printze adiskideari egiñiko karta bategaz batera.

Beingoan asi ziran irakurle zur batzuk zaio txarrak egiten: *Dies /rae* au ez dator bat semeak *Parnasorako Bidea-n* argitaratu ebanarekin: Nondik dau, ba, ezbardintasuna? Argi dago; semeak aitaren bertsoak orraztu egin ditu, euskera obe eta garbiagoan argitaratzearren, antza. Salakuntza onek gero ta indar andiagoa artuko dau laster. Bermeoko eta Zarautzen olerkari orren bertso-mordo ederra dauke, egillearen eskuz idatzita. Bermeon ondo gordeta dauke frantziskotarren fraidetxean Aita Uriarte Arrigorriatarrak idatziriko *Poesía Bascongada* manuskritoa, joan dan gizaldiko olerkari bizkaitarraren bertso-bilduma, Eusebio Mariarenak barruan dirala. Aita Villasante argiak gain-begiratu bat egin deutse *Parnasorako Bidea*-koai eta manuskritokoai eta naikoa izan dau bere eritxi garbia emoteko: semeak argitaratuak eta aitarenak ez dira bapere bardiñak, askotan; semeak argitaratzerakoan, zearo aldatu eta ikutu gogorrek egiñik emon ditu argitara.

Esan bearrik ete dago geroko ikerlariak Ebanjelioa lez artu dabela Aita Villasanteren epaia? Ala Itziar Lakak bere artikulu bat edo bestean, eta bardin Jon Kortazarrek Uriarteren *Poesía Bascongada* argitaratzean.

Gure aldizkari onetan auzi au obeto ikusteko orain amar urte egin genduan alegintxoaa alperrekoa izan da. Egia da gure artean, garean gitxiontzat, aldizkari eta paperik larregi agertzen dala, eta guztiok ezin geintezke eldu guztiak irakurri eta guztietan idazten dan guztiaren barri jakitera; baiña alan-olango kritikazko arri bat jaurtiten danean, batez. be norbaitzuen aurka bada, bide luzea egiten dau. Guzuz argia eta uste ustela bada be, eztaikit zergaitik eutsi egiten jako, ezta atzera egiten.

Onetan Azkue andia zorigaiztokoena dala esango neuke. Len, Barrutiaren ertilana zala ta etzala, jaso jakon. Pekatutzat salatu nai eutsoen Azkueri Barrutiaren *Gaboneko Ikuskizuna* argitaratzean izan eban jokararik argi ta garbiena: Barrutiaren testoa erderakada eta erderazko bertso ta guzti ezer aldatu barik argitaratzea. Azkue zanaren orduko kritikalaria edo zaunkalaria arek oartxo baten bere erabagia azaltzeko ipiñi zituen iru lerrotxo irakurten eta ulertzen be ez ekiala emoten eben. Bear bada, oindiño be lengo lepotik dauke burua. Eneuke ezetik esango. Oraingoan, bere aitaren bertsoak goiti bera aldatu zituela-ta, ortik datorkio arri jaurtitzailleen eraso. Ñok idatzi ete dau Mitxelenaren izenean argitara dan Hiztegi Orokorra-k aurrean daroan Bibliographia? An dago lerro bitan esanda Lakak eta kortazarrek eurena egin daben epaiaren guzuz guztia: Azkue semeak aitaren olerkiak oso aldaturik atera zituela eta orain *Poesía Bascongada-n* daukagula Azkue aitaren benetako olerki-lana. Ori ara eroan dauanak ez deutso mesede andirik egin Hiztegi orri, eta bape bidebako iraiña Azkue semeari. Sorbalda sendoduna zan Azkue baiña, eztot uste irain ori, arri ori, miñik bapere artu barik jasoko ebanik.

Okker ulertu batzuen jatorria

Auzi onetan kritikalaria artu eben bide okerraren nondik norakoa zelanbait argiturik gelditu da orain arteko lerroetan. Orain ikusi daigun non asi zan kritikalarion bidea okertzen.

Dies jrae latiñezko bertsoen euskerazko itzulpen biren aurrean aurkitu ziran. Bata ez etorren besteagaz bardin. Bata Azkue aitaren eskuz idatzitako paper batekoa zan, bestea jakin ez nondikoa. Baiña eurak euretara atera eben kontua: nor izango da, ba, errudun? Azkue semea, aitaren bertsoen argitaratzailea. Beste ezer asmetan ez eben jakin. Ez ete ekien ikerlari andiok eta kritikari zorrotzok Azkue semeak aitaren *Dies jrae* ori argitaratu baiño askoz lenago Manterolak argitara emonda eukala beste *Dies jrae* bat Eusebio Maria berarena eta ez etorrela bardiñ ez Bonaparteri bialdu eutsonagaz, ez *Parnasorako Bidea-n* argitaratuagaz? Ez ete eben Manterolaren *Cancionero Vasco* liburuan irakurri berak argitara emoniko *Dies jrae* orrek Eusebio Mariartn esku-idazkietan estrofa mordo bat neurri berean baiña oso bestela euskeratuak eukazala, eta ez etozela bardin ez Printzeari bialduagaz ez Azkue semeak argitaratuagaz? Are geiago: Manterolak ez eban bakarrik *Dies jrae* euskerazko ori argitaratu; beste mordotxoa be bai. Eta barrero be gauza bera jaso jako: bein edo beste, beintzat, estrofaren bat bi eratara euskeratuta aurkitu dau.

Zer esan gura dau onek? Orain amar urteko KARMEL-en esan gendua-na. Or argi baiño argiago dagoana, begiak itxi gura ez dituanarentzat,

zera da: Azkue aitak bere bertsoen kopia asko zabaldu zituela, eta asko oso ezbarđiñak. Etzan, antza, bein egiñiko lanaz oso aserik gelditzen, eta urrengo kopietan ikutu barriak egiten eutsezan eta goiti bera aldaturik itxi. Au ikusteko, ezta neke andirik artu bear. Manterolaren *Cancionero Vasco* irakurri dauanentzat eztago gauza argiagorik. Eta Manterolaren liburuok oraintsu berrargitaratuak, nai dabenen eskuetan dagoz. Liburuok irakurri ez dituenari dana egingo jako illun eta ezin ulertuzko, eta olangoa azterketa ergelak egiteko arriskuan dago. Orain artekoai jaso jaken lez.

Lotsa emoten deutso bati olango gauzak ikerlari ain eskolatuai gogoratu bearrak. Ez Lakak ez Kortazar ez dirudi Manterolagana argi billa joan diranik. "Somero cotejo" eginari osoan sinistuta ibilli dira, itsua itsu-aurreko artuta, egiaren jabe bakar balira lez. Ez atzetik datozenak zer egingo dabe, ba, maisu ain andiai siñiste osoa emon besterik, Hiztegi Orokorrai bibliografia jarri deutsonak egin dauan lez?

Gure artean, sail batzuetan beintzat, kritika-lana, iker-lana mantarretan dago, oso narras dabil. Iñori etxako atsegin egiten olako akatsak salatzan beti ia mailu bereaz joten ekin bearra. Baiña salatu bearra dago, aspergarri biurtzeko bildurrak kenduta. Ez salatuak eztau arlo au garbiago itxiko.

Orain argitaratu barri dan *Poesía Bascongada*, Aita Uriarte bizkaitararren XIXgarren mendeko bertso-bildumak gure salakuntzak sendoago eta oiñarrituago baiño eztitu egiten. Zorionean eldu jako bilduma orri plazara urtetako ordua. Fraide frantziskotar orrek bere egunetan bildu zituen bertsoz osaturiko bertsoésorta eder ugaria da, gaur artera argitara bakoa. Aita Uriartek eta gure egunetan Aita Ruiz Larrinagak emon euskuen aren barri, Uriartek berak Bonaparteri idatzi eta Larrinagak Euskalerraren Adiskideen Boletíñean orain ogetaka urte ezagutuerazo euskuzun eskutizetan. Eskutitzon esku-kopia bat izan neban neuk be neure eskuetan aldi-kada baten, eta an ikusi neban Larrinagak argitaratutakoetan baten utsa egoala eta urrengo *Boletín* baten uts ori betetan lagundu neutsan aldizkariari.

Poesía Bascongada Bermeoko frantzikotarrak eukela-ta, ara joan nintzan bein manuskrito ori ikusi nai nebala-ta. Utsean gelditu zan nire asmoa. Uriarteren lana Arantzazura eroana ete zan erantzun eusten. Amalau bat urte geroago, Markiñan bizi nintzala, ara non datorren, manuskritoa eskuetan ekarrela, gazte bat, naparra bera, Arrigorriagan euskal-irakasle zana, eta Arrigorriagako seme Uriarteren gomutaz ikerlantxo bat egiten ziarduana. Derioko Seminarioan itxi eutsoela esan euskun. Eta gure egunotan Derioko Seminarioan izana dan batek, Jon Kortazarrek, bere andreagaz batera, orra non eskuetan ipiñi deuskuen goizetik gabera askok ezagutu nai genduan bertso-sorta eder ori. Bizkaiko Aldundiaren laguntzaz.

Or dator Eusebio Maria Azkue zanaren bertso-pillo ederra. Eztitu *Par Bidea-n* argitaraturiko guztiak; baiña bai an argitaratu bakoen mordo ederra be; eta bat, luzeena, Karmel-en orrietan ezaguerazoa (2), *Euzkadia*, poema asi eta amaitu bakoa (Uriartek oker irakurrita edo *Euzkaradija* egin badau be). Azkue semeak poema au ez eban ezagutu urteak geroagogarreanean aita Zalduak Zarauzko orijinaletik aldatuta bialdu eutsan arte. Gaur Bilbon Euskaltzaindiaren bibliotekan dauke.

Kortazarrek eskuerakutsi ederra egin deutso euskalzaleai, egia esateko. *Poesía Bascongada* orretan ba naiko argi ikusten dogu Eusebio Mariaren bertsogintzako jokabidea, bertsoak kopia batetik bestera aldatzea. Aldatu egiten zituen euskerazkoak ez eze, erderazkoak be bai. Eta nori jatoriko burura erderazko orreik be Azkue semeak aldatu dirala? Orregaiti, barreguretxoa emoten deusku Kortazarrek onako uskerietan sartzen danean: emen izenburua, tituloa aldatu deutso, beste orretan ez ditu maiuskulaz asi bertsoak, edo zeruak emonik diño *Ceruae emonic* idatzi bearrean eta olako ainbat uskeritxo, lerro eta orrialdeak betean, alperrik. Ortografi kontuan gauza jakiña eta berak autortua da Azkuek orduko geienen ortografiara aldatu zituela aitaren bertsoak. Are geiago: beste gramatika-arau batzuk bardin aldatu eutsazan aitari, aitak be geroago bizi izan balitz, alan egingo ebala-ta, esaterako *-ea, ija, -oa* (bakea, osoa, zuria egiñez eta ez *bakia, osua, zurda*). Aita Uriartek be ez eutsan jarraitu *Vizcainja, bildurgarrija, arguija* eta olakoetan, ezta Mantelak azkenengo tomoan.

Aita Uriarteren lana eta Jokabidea

Uriartek egin dauena kopi-lana izan da. Ez dagiala iñok uste or Eusebio Mariaren orijinalak daukaguzanik. Eta olerkari orren lan guztien bilduma ez izanaz gaiñera, kopiatazailleak bere ikutuak egin deutsoz arek egiñikoari. Eta ez bakarrik ortografian. Aita Uriarteren kopian ez da agertuko Eusebio Mariaren ortografiak daukan ,ezaugarri oso ezagun bat, hatxea jota ondoren jarria:

Ñai dozula, Fr. Jose
zortziko barrija?
Beste oñ bat imiñi, ta
or dozu erdijsa?

Uskeria baiño ezta, baiña Uriartek H kenduta, J hutsa kopiatuko dau eta arrija eta erdijsa idatziko. Eta ainbat lekutan dator idazkera ori, hatxedun ori, Eusebio Mariaren bertsoetan: jharri, jhaso, jhagi, epaijsa, jhosi, bihotz, errukijha, eta olakoak idaztea da aren ortografiaren ezaugarrietako bat eta Uriarteren kopian bein edo beste baten baiño ezta agertzen. Orrez gaiñera, Azkue aitaren euskereari Uriartek bereak zituen gramatika-lege batzuk ezarri deutsoz, olerkariaren forma batzuk zuzenduta. Eusebio Mariak aurrez erabilten zituen Bizkaian eta Gipuzkoan leku askotan ondo sartuta dagozan deklinabideko lege batzuk: *andrea, gizonan, mutillan, gizonantzat, andrea, gizonaren, mutillaren, gizonarentzat* eta olako era osoagoen orde. Uriartek orretan bere eskua sartu dau, bertsoaren neurria bera be kontuan artu barik. Eta bein eskua aurreregi joan jakola esango neuke. Ziri-bertso bat Azkue semeak onetara dakar *Parnasorako Bidea-n*:

Eskribauen egia
eta andrea negarra
eta isila atso zarra
guzurra (da) guztia.

Azkue semeari or uts batek urten eutsan guk taket artean jarri dogun (da) ori. Manterolak be bardin dakar, edo ia bardin *andrea*n ordez *andria*n jarrita. Baiña, antza, aita Uriartek erabili eban kopian edo orijinalean ez etorren ez *andrea*n ez *andria*n, beste itz itsusitxoagoa baiño: *Hembria*n *negarra*, Zarauzko manuskritoan datorren lez. Eta zer egin dau? Zantarregi eritxi deutso itz orri, eta euskera garbiagoan jarri gura izan dau eta itzik luzeenera jo dau orretarako: *Hembria*n *negarra* *emakumiaren* *negarra* egin deusku, bertsoa luzeegituz. *Andria*n ikusi baleu, *andria*e'n egingo euskun, beste guztietan egin dauan lez; *gizonaen-mutillaentzat* eta olan.

Beste ikutu bat Uriartek orijinalari egiña: Bizkaian eurrez erabili izan diran eta erabiltzen diran formak doguz: *antziñarik* ona, *atzorik* ona eta iñok ez dau esango oso jatorrak ez diranik, bearbada jatorrenak. Eta ez Bizkaian bakarrik, beste euskalki batzuetan, urriñenekoetan be erabili izan da *-ti edo -di* atzizkia onela: gure *aurreti*, *ganeti*, *atzeti*, *gaiti*, *orregaiti*, *zergaiti* edo *zegaiti*; *andi*, *orti*, orrelantxe, batetik -rik eta bestetik -ti itza beste barik. Uriarte beste oitura batera eginda dago, eta bere gramatika-legeetara ekarriko dau Eusebio Mariaren euskera: *antxiñatik* ona, *aurretik*, *artetik*, *agaitik*, *andik* eta olan, forma orreik jatorragotzat edo zuzenagotzat artuta edo. Azkue semeak egin eztauana.

Beste itz batzuetan be Eusebio Mariarenak zuzentzera egin dau aita Uriartek. Eusebio Mariak non nai eta noz nai erabiltzen ditu onako itzok: *Azkana*, *igaz egin*. Aita Uriartek zuzendu egiten deutsoz, *azkena*, *iges egin*. Azkue semeak egin eztauana, emen be. Bere seme-eskubideak ez ditu orrenbesteraño eroan. Uriartek seme-eskubiderik eztau gogoan izan, baiña bere ikututxoak egin barik ezta gelditu olerkariaren bertsoak kopiatzerakoan, eta ez deusagu orretan pekaturik, ez larririk ez txikirik ezarriko, bere eskuetan gordetako egiñak zituen eskero kopiak, eta ez argitara emoteko. Bere euskalzaletasunak eragiñiko lana zan egin ebana.

Azkue semearen jokabidea

Azkue semeak garbi autortu dau berak aitaren bertsoakaz egin dauana: idazkera (aitaren idazkera bitxitxo) eta itz bat edo beste aldatu. Ori egin dau seme-eskubidea artuta, aitak ordurarte bizi izan balitz, alan egindo ebalakoan. Aitaren ortografiatzko bitxikeria (*barrija* eta olakoak erabiltea) kendu egin deutso, Manterolak be azkenengo urteetan kendu eutsan lez. Lenengo emonaldietan Manterolak olako itz guztiak gorde egin eutsozan, *Dies trae* itzultzekoetan esaterako: azkenengo tomoetako bertsoetan ez.

Azkuek itz bat edo beste aldatu egin eutsazala diño. Eta liburuaren barruan bi edo iru bider bertsoaren azpian jarri dau zein itz izan dan aldatua; Bein fina-ren ordez *bikaiña* (bertsoneurria aldatu barik), beste bein *guardasol*, *euritako* biurturik, irugarrenez, *urratsa*, *pausua* esateko. Beste beln *Antziñarik ona* olerkian *balitzete* irakurri dauan lekuan, Manterolak *balitz ere* jarri ebanean, *balitzate* obe legokela baiña, *balitzete* itxi dau. Antxe bertan Uriartek *baldin balitz* emon dau. Zuzen ala oker? Bear bada olan ekarren Uriartek aurrean izan eban kopiak; bestela or Uriarteren ikutuen bat izan dala esan bearke geunke. Bartolome Erzilla zanaren

euskerazko kantutegian be *balitz ete* irakurten dala dirudi. Azkuek irakurri eban lez. Uriarteren *baldin balitz* berez jator badago be, beste iru irakurkeratetik urriñekoena dala argi dago, eta bego or Azkue aitak zabaldu zituen kopia ezberdiñen ezaugarri. Or ikusiko dabe gure ikerle eta aztertzaile zorrotzok emen "somero cotejo" egiteak ez dauala balio eta ez garoazela iñora.

Iru lau itz orrez gaiñera, besterik aldatu ete eutsan semeak aitaren bertsoai? Ñik neure *Karmel-eko* idazlanean beste itz batzuetariño eroan neban semearen aldaketa-lana, ezer ziurtzat emon barik. Orduan emon nituen berba batzuk kendu egingo nituke gaur. Katamotz, esaterako, *tigre* esateko, Uriarteren kopian be agertzen da noz edo bein. *Azula* eta *jira* dira Eusebio Mariaren bertso kopia batzuetan sarri aurkitzen diranak, baiña semearen *Parnasorako Bidea-n* beti *urdiña* eta *bira* irakurtzen ditugu. Ortik aitaren bertsoai semeak goitiberako aldaketak egin eutsazala esatera alde andia dago, eta besterik diñoenak ezelango arrazorik ez argibiderik eztabe emongo, euren "somero cotejo" orrena ezala. Semeak Uriartek baiño begirune eta lotsa geitxoago deutso aitaren testoari askotan.

Badakigu zergatik dabilzan gure aztertzaile eta kritikariok nora ezean nondik nora dabilzan eztekiela. Euren buruetan sartuta dauke Eusebio Mariak bere bertsoen kopia bakarra idatzi ebal. Euren eretxian Aita Uriartek zeatz artu eta zuzen jaso zituen bere *Poesía Bascongada-n*; semeak osteran an or emen goitibera aldatu eta olantxe argitara emon. Eztabe kontuan euki ez Manterolak bere *Cancionero Vasco-n* argitaraturiko bertso ezberdiñen susmorik, ezta Zarauzko manuskritokoenik. *Parnasorako Bidea* liburutik Uriarteren *Poesía Bascongada-ra* alderik bada, bertsoak bietan bardin ezpadatoz, eurak badakie nor dan errudun. Azkuek bertsoai askotan izenburuak eurak be aldatu egin ei deutsez. Uriartek *Ez dago falta bagarik* badakar eta Azkue semeak *Iñor eztago gogo-beterik bere zoriagaz*, or semearen esku zuzentzailea ibilli da aitaren euskerea garbiago aurkeztutearren. Manterolaren liburua ikusi balebe, an irakurriko eben titulu bardiña, semeak *Parnasorako bidean* baiño ogei urte lenago idatzita.

Zelan esan bear ko eta deutsegu kritikari itzuo oker dabilzala eta euren okerretik urtetako gaur aukera erreza daukela Manterolaren lana neure itzaurretzoaz iru tomatan argitara emona dogun ezkerko? Zelan esan bear ete deutsegu euren • buruan sortutako ipuiña dala Azkue semeari ezarri nai deutsoen aitaren bertsoak euskera garbiagoaren atera bear itsua? Itsu dabilzanan nortzuk diran argi dago emen. Gauzea bear dan lez aztertu barik, edozer esateko eskubidea artzen dabenak. Maixuantzak artuta, edozer zeatz aztertze ko eta edozertaz azken-itza esateko, "somero cotejo" egitea naikoa dabela uste dabenak. Eta gero, edozeiñek erabilli oi dabezan gaiak ez diranez, nok siñistu errez aurkituko dabela badakie, eta zoritxarrez alan jasoten da.

Orain *Poesía Bascongada* argitaratzeak argiago baiño ez deusku ipinten amar urte dala esan gendua: Eusebio Mariaren manuskritoetan aibat bertso gelditzen zirala garbiagoak *Parnasorako Bidea-n* semeak ezaugerazo eskuzanak baiño. Zergaitik, bada, semeak bertso garbiago areik itxita zatarragoak atera zituen? Berak ez zituelako, eta, esaterako,

Zarauzko manuskritokoak ezagutu ez zituelako, aita Zalduek azken urteetan kopia aterata bialdu eutsan arte.

Manuskrito orretatik emon genduan Karmel-en *Euzkadia* poema amaitu bakoa. Eztakigu orain zergaitik datorren Kortazar Uriarte aitaren kopiaz Euzkadia ori *Euzkaradia* egin gurez. Ez ete dogu or Uriarteren oker irakurteren bat? *Euzka* da Eusebio Mariaren bertsoetan euskal-musaren ize-na, eta ortik atera eban gure olerkariak Euzkadia, lenengo erroa *Euzka* dauala, eta ez *Euzkara*.

An atera genduzan, Zarauzko manuskritotik jasota, amasei bat bertso-taldi semeak argitaraturikoak baiño askosaz garbiagoak, eta puntu ezbar-diñekaz be bai. Orain *Poesía Bascongada-koak* ikusita, "Cotejo somero" egitea naikoa da (oraingoan bai), gauza bera ikusi ta esateko: iturri ezbar-diñekoak dirala eta ez dala ikusten zein dan zatarrago ez zein gar-bi-ago askotan.

Ñai dauanak ikusi dagian, ona "uledun bati" izenburua daroan ziri-ber-tso laburra.

Azkue:	Uriarte:
Zeurea dala ulea	Zeuria dala ulia
dinozu Marianton;	diñozu Marianton;
bai, ze ezteutsula Pons'ek	erosi zendulako
doan emon Bilbon	diruagaz Bilbon.

Azkuek dakarrenak eta Manterolak argitaratuak iturri bera izan dabela dirudi, fonetikaz aparte. Uriartek Zarauzkoa izan dau, antza, -aurrean, bai-ña Zarauzkoaren *zendulako* luzetu eta *zendualako* egin dau, bertsoa be luzetuz. Baiña zein da garbiena? Iñok eztau esango Azkuena dala. Len ikusi dogu beste ziribertso bat, iru guzurrena, Uriartek ezarri deutsan bes-te luzapen batz.

Bertso luzeagoetan aldaketa edo ezberdintasun andiagoak agiri dira. Ona *Zalduna ta Damia* (damea Azkuek) olerkariaren asierea:

Azkuek:	Uriartek:
Bata bestean besoa artuta	Bata bestiaren besoa artuta
kapa-barruan biak ostuta	gaubian kapa baten ostuta
ebiltzan Bragas ta Maria	ebiltzan Bragas eta Mariya
landa aparta	iai ze gloriya!

Iturri ez-bardiñeko bertsoak oneik be. Testu bi, iturri bi. Uriartek oi dauan ikutua egin deutso; *bestian* barik, *bestiaren* kopiatu dau, bertsoa luzetuta.

Askotan batak ez daroa bestearen antz andirik. Ona Buenos Aires aldeko euskaldunarena:

Azkuek:	Uriartek:	Zarauzkoak:
Buenos Aires aldeti	Buenos Aires aldetik	Buenos Aires aldeti
artu dot karta bat	artu dot karta bat	artu dot karta bat
eta orain esateko	eta bertsan iminteko	bertsotan iminteko
zer dinoan berak	asmua gaur daukat:	gurarijha daukat
euskaldun mutil gazte	andik dagan batek	andi dagoan batek
buru zoratuai	emengo euskaldunai	emeko euskaldunai
eldu iat naiaria	neure bitartez bota	neure partez bota
eta eztot itxi nai	deutsena guztijai	deutsena gustijhai

Emen bertso baten iru aldaketa daukaguz. Zein ibilli da emen bata besteari zuzenketak egin? Iruretan Azkue aitaren eskua bera. Uriartek *andik* eta *aldetik* orrekin bere ikututxoak egin deutsez Eusebio Maria beraren manuskritoko itz orrei.

Ikusi daigun orain Uriartenean *Gerria, gosia eta izurrija* izenburua daroana eta Azkuenean: Gudua, gosea ta izurria. Ona asierako estrofa biak:

Azkuek:	Uriartek:
Trumoiak ots egin dau eta oñaztarria dator gure ganera ikaragarria!	Trumoi eta oñastarrija beragaz munduak darabiltz kenduteko bere pekatuak:
Gudua! eta zer da munduan gudua?	oneek dira guerria, gose ta izurrija,
Geuk merezi dogun Jaunen gorrotua, Luzbelek biurtuta kerubin okerra	lenengo, bijak plagak, bestia andija. Luzifer anditsuak aingueru aserria
geure Jaungoikoari egin eutsan gerra, ta Miguelek goituta bere andikeria	zeruan eregi eban lenengo guerria ta Miguelek goiturik dauka sentenzija
betiko da infernuan deungen nagosia	izateko infernuan deungen nagosija.

Orra poema bat beraren bi aldaketa, bertso egitaldi banatan egiñak. Onango aldaketak, idazle berberak egiñak, argiago egiten jakuz *Poesía Bascongada* liburukoak ikusita. Liburu onetako *Stabat Mater* eta *Euskal-lerria* aldizkarian ateratakoa ikuste baiño eztago. *Parnasorako Bidea-n* eztago Azkue aitaren euskal itzulpen ori; bai aldizkari orretan, Manterolak argitara barik itxi zituen orrietatik artuta. Ñekez aurkituko dogu bietan estrofa bardiñik, baiña biak dira Eusebio Manaren lumatik urtenak. Zelan esan bear ete jake gure kritikalarri ain ariñoi guztiz oker dabiltzala, itsu itsuan diarduela?

Ia aspertu da gure irakurlea lan au onaiño irakurteko gauza izan bada. Eta berau irakurteak bear bada agoan itxi deustan mingoztasuna gozatzeko, atsegingarriago egingo jakon barri bat geitu gura deustat: laster, zorionean, Azkue aitaren lan guztien edizio osoa Labairuko gazte batek gertautu daukala. Edizio osoa eta al danik kritikoena, iturri guztietako urak artuta, *Parnasorako Bidea-tik*, *Poesía Bascongada-tik*, Manterolaren *Cancionero-tik*, eta bear bada beste iturri batzuetatik: *Irurak bat* egunkaririk, Bartolome Erzillaren euskal-kantuetatik. Bartolome Erzilla onek be bada- kar bat olerki beraren irugarren aldaketa bat daukana: *Emen nago ni tristia*.

Ordu dogu *somero cotejo* egilleen eskuetatik auzi au aterateko. Ordu dogu uskeri utsezko kritika eta salaketak egiten ekitea isteko, emen olerkiari titulua aldatu ete deutsoen edo ezdeutsoen, edo or bertso guztiak minuskulaz asten diran ala ez, edo bertsoak zenbatu barik dagozan ala

ez, eta eztaikit zelango uskeri geiago. Batez be, edozein gizoni lez, euskerak izan dituen maisu andiai lotsa ohea izaten ikasi daigun.

Hiztegi Orokorra argitaratzen asi barriari ez deutso mesede andirik egin aren bibliografian *Parnasorako Bidea*-ri eta aren argitaratzaillari dagokana idatzi dauenak, "cotejo somero" egillea gidari artuta. Egia ezta-nari indar barria emon deutso, eta euskal-iztegigintza bide zuzenean ipiñi ebanari, R. Maria Azkue zanari bear ez eban iraiña egin deutso. Ñoz arte irauñ bear ete dau bear-eztankeri onek?

Lino Akesolo

Oarra: Aita Lino Akesoloik aurreko lan au idatzi ebanean esaten dauan "laster, zorionean, Azkue" aitaren lan guztien edizio osoa Labairuko gazte batek gertuta daukala", zorionez egi biurtu zan eta kalean dago liburu-a. Deitura: Eusebio Maria Azcue-koa, "Euskarazko Vertsoak". Bilketa eta edizioa, Asier Astigarraga eta K. Josu Bijuesca. Bilbao. Jarein. MCMXC. Labayru Ikastegia eta Bilbao Bizkaia Kutxak zorionak merezi dabez, euren babespean kaleratu dalako.

(Euskerazaintza)

ERRITARREI ENTZUTEN

Peru'k ardiak ditu eta gaur, ekaitza sortu danean, bat falta ikulluan. Jaiki eta an dijoa illunpeetan mendira ardi-billa. Auzoko Anton'ek ez du ez ardi ez ikullurik eta onela diotza bere emazteari oe barrutik:

— ARRIMA, ARRIMA, PASKUALATXO, EZER EZ DAUKAÑAK BADU SUERTERIK ASKO.

Deba'n entzundakoa

Miren eta Arantza lagunak dira eta eztabaida bat izan dute bien artean.

Antoni'k Miren'eri:


— Zer dio Arantza'k?

— Ura askotan **bere izenaren jabe** izaten da.

Deba'n entzundakoa

Tolosa'n Arizmendi apaizaren izeba zar batek, era parregarrian agertu zan neska bat ikustean:

Berea ez dunaren poza!



EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN ***

871'an Araba'ko Larruki bat (II)

Egin dezagun, irakurle, jauzi txiki bat, milla ta eun da ogei urteko jauzia, gure 1991 ontatik, larruki au idatzia izan zan 871'garren urteraiño. Eta jarrai dezagun, garai artako euskaldunen oldozkera artuz, garai artako idazkiak aztertzen. Garai bakoitzak badu ba oldozkera berezia; eta garai ontako oldozkeraz ez bait daiteke garai artako oldozkeran sortutako arazorik ulertu.

Amairu toki-izen damaizkigu aztertzen ari geran larruki zar onek. Bost, aztertuak ditugu "Euskerazaintza"ren azken-zenbakian. Zortzi gelditu zitzaizkigun aztertu gabe. Onako auek ain zuzen:

GAÑÑA	SPIÑO	SALOÑE	LETOÑÑU
ESTABELLU	HELHORRIAGA	LEGIOÑ E	ZESTABE

Ekini deiogun izen oien azterketari atxedun Helhorriaga ortatik asita. Badu larruki onek "H"z idatzitako beste izen bat ere: Ereihehi. Azterketa zeatz baten ondorean, auxe erabaki genduan gure azkeneko idazlanean: Ereihehi orri Ereñegi esaten ziotela IX mendeko euskaldun aiek, izen ortan agertzen zaizkigun "IH" izkiak "Ñ", eta, azkeneko "H" a "G", agoskatzen zituztelako.

Goazen orain larrukiko bigarren atxedun izenera:

BELHORRIAGA. Itz au nola irakurri bear dan jakiteko, gure ikerketa así aurretik, itz ori lumalariak nola idatzi zuan jakin bear dugu aurrena; eta gero, erri-izena dan, ala giza-izena izan daitekean.

Ñola idatzi zuan erdiaroko lumalariak? HELHORRIAGA ala BELHORRIAGA?

"Helhorriaga" irakurri zuan Serrano'k: "...et de Spino abbate Helhorriaga usque S. Romani".

Ubieto Arteta'k ordea, "Belhorriaga" irakurri du: "...et de Spino Belhorriaé ga usque Sancti Romani".

Ez da erreza esaldi orren itzulpena ere, "abbate" ablatibu-eran egoteak esaldi guztia illuntzen bait du.

Baiña erdiaroan, sarri aski, tokien izenak, eta jendearen ogibide ta egin-kizunen izenak, ablatibuz-eraz artuta "indeklinable" edo deklinakaitzak bezala erabili oi ziralako, esaldi osoa onela ulertu bear dala iduritzen zai-gu: "... et de Spino abbatis Belhorriaga (ala Helhorriaga) usque Sancti Romani (ecclesia)". "Belhorriaga (ala Helhorriaga) abataren Arantza'tik Doneerroman'en elizaraiño".

Era ortan bai, Belhorriaga (ala Helhorriaga) giza izena da. Abata baten giza-izena. Baiñan baita eskierki erri edo toki baten izena ere, gure abizenak, abizenak izan aurretik, toki-izen izanak bait dira ia beti. Erri-izenak berriz Araba'n maiz aski.

Saia gaitezen izen bikoitz ortako "H"aren izkutukia agertzeko zerbait egiten.

Euskeraren idazkeran ez da "H" a uste oi dan bezain zarra. Kukulla'ko larrukirik zarrenetan apika bat edo beste aurkituko dituzu. Bi "H" dituzten izenak ematen berriz, 871'ko au duzu aurrenekoa.

Erdiaroko dokumentuak baiño askoz leenago ere, Akitani'n erromateko arri-idatzietan ez da "H" askorik ikusten, laterazko izenetan izan ezik. Ikusten dira euskal usaieko izenetan ere. Baiña izen oiek, "H" daramakiten laterazko izenen antzekoak diranean. Arri aiek lateraz izan bait ziran idatziak.

BELHORRIAGA irakurri du, esan dugunez, Ubieto Arteta'k izen ori. Ta, nik, izen ortako erritxo ura non zegoan ez dakit. Araba'ren iparrean ez-pairik gabe. Ez da erreza bere etimologia ere. Baiñan bere "H"aren arazoak zailtasunik ez du. "H" ori, "L"ren atzean, "LL"ren doiñua emateko erabiltzen bait zuten antziñako idazle aiek.

"Belhorriaga", beraz, BELORRIGA irakurri bear dugu.

Oso izki sorgiña izan zan "H" a lumalari zar aientzat.

— Batzuetan, edergaillu uts bezala erabiltzen zuten, batez ere lateraz "H"z idazten ziran itxura bereko izen arrotzak ezagutzen zituztenean. Edergaillu utsa da, adibidez, Tolosa'ri 1599'an Cuelbis izeneko ikasle ibiltari batek bere mapan sartu zion "H" a.

Garaia artan, Tolosa, Frantzi'ko uriari esaten zitzaion. Gipuzkoa'koari berriz, Toloseta. Cuelbis'ek ordea THOLOSETTA idatzi zigun, "H"z. Izenari, amaieran, bi "TT" ezarri nai zizkion ezkerro, simetriak, kidetasunak, aurreneko "T"ari "H" edergaillua ipintzeko agintzen bait zion. Orregaitik, "H" ura apaingarri utsa besterik ez zalako, ez du bigarren aldiz erabilliko, mapa berean, Oria ibaiari, "Rio TOLOSA" esaten diorean.

— Beste batzuetan, gaur-egungo karta-jokuetan "komodiña" edo "guztitarako gala" bezala erabiltzen zuten Haranburu Altuna'ren aitortenez "Euskal erreboluzioaren sinbolo plastikoa" dan izki baliorik gabeko ori.

Ala, dokumentu zarretako "H" a, batzuetan "Ñ" izango duzu (Urrunha).

Beste batzuetan "LL" (Lhodio), edo, agian, "B" (Aharoa), edo "Y" (Bizcahiensis), edo "K" (Aher) edo "TT" (Ithurri), edo "G" (Aranehi).

Aurkituko dituzu oraindik, "H" a edergaillu dotorea dala uste duten txoriburuak. Bada gure Euzkadi'n "Sant Rhu" izeneko edaritegi bat. Gazteiz'ko Zumarraga'tar Tomas Doatsuaren karrikan ain zuzen. Ta, izen orrek zer esan duan jabeari galde egin genionean.

- "Sant" ni Santos naizelako, —asi zitzaigun esaten.
- Abizena berriz... Ruiz izango duzu seguruaski?
- Bai. Asmatu duzute. Ruiz da nere abizena.
- Ta..., "H" ori zergaitik sartu diozu?
- Politago egiten dualako.

Bide ortatik ibilli zan Enrique Jardiel Poncela ere, "Amor se escribe sin H" eleberria idatzi zuanean.

Belorriga'ren etimologia zer izan daitekean ezin usmatu ere dezaket. itz euskalduna dala bai. Ñaitanaiez izan bear euskalduna, IX mendeko Araba'ren iparrean.

"Bell" aurrizkia daramaten izenak baditugu Euskalerrian. Eta geiago, aurrizkiz "Bel" daramakitenak, antziñako "LL" zarra "L" biurtu bait zaigu. Ta gure "l" antziñako lumalari aiek askotan "E" idazten zutela jakiteak, ez digu etimologigitzarik errezagoa biurtzen. Baiñan, orrela, itz bat bera ditugu, adibidez, "Belloria", "Beloria", "Biloria".

Araba'n bada Biloria bat. Beste bat Ñaparroa'n Lizarra-aldean eta beste bat Errioxa Garaiean. XVI mendea arte euskeraz egin zan lurraldean. Orrek pentsaarazten dit neri, Bitoria, Gazteitz'en beste izena ere, izen euskalduna dala.

Kerexeta'ren ustez, "Bell", "Bel" aurrizkiak, "B" protetiku edo edergarri bat aurreti dutela, gaztelerazko "pastizal" esan nai duan "elo" itza euskaldun ornen dira. "Bill" eta "Bil" berriz, "B" ederegarriaren atzetik, "illa", "illo", gazteleraz "brezo" esaten zaion "illar" itzaren aldakuntzak.

HELHORRIAGA. Serrano'k nai izan zuan bezala, IX mendeko lumalari ark itz ori orrela idatzi ba'zuan, "Elorriaga"ren antzekoa dan itz orri bi "H" nabarmen oiek zergaitik sartu zizkion azaldu bearko dugu lendabizi.

Arazo aski garbiturik utzi dugu, esan-berri dugunaren bitartez. Aurreneko "H" a edergaillu utsa da. Bigarrena berriz, "L", "LL" biurtzeko ezarria.

Orrela, "Helhorriga", ELLORRIGA irakurri bear dugu.

Asko ta asko dira, gaur-egungo portulgaldarren antzera, "LL" adierazi naiez antziñako lumalariak "LH"z eman zizkiguten itzak. Batez ere, XI mendez aurrerakoak, naiz geroago ere maiz aski berdin jarraitu.

"Olha", "Olhazabal", "Olhaoki", "Olhoki", "Olhabarre"... eta anitz geiago, oien antzera.

Esan daiteke "OLA", la beti, "OLHA" idazten zutela.

Gero, XII mendez gero, asia bait zan erromantzea sortzen, itz oiek oso maiz "LL"z idatziko dizkigute: "011a", "011azabal", "011aoki", "011oki", "011aran", "011abarre", "011auri".

Eta izen oiek danak, orrelaxe dira danak, gaur egun bertan agoskatuak: "LL"z, eta ez "L"z.

Ziur uste bait dut nik antziñako euskaldun aiek guk baiño geiago era-biltzen zituztela "LL", "Y" eta "Ñ" izki goxoak. Eta baita, seguruaski "TT" eta "DA" ere.

Bada noski ELLORRIA edo HELHORRIGA ura non zegoan esaten asteko garaia.

Bada Araba'n Elorriaga bat, Gazteizen albo-alboan. Itzalik aski izanda-ko erria, Antziña an biltzen bait ziran Araba'ko aitorren semeak, jende xumea egoaldexeago dagoan Lasarte'n biltzen zan bitartean. Aitorren seme aiek, nekazaritza-lurren jabeak besterik ez ziran; eta, jende xume ura berriz, nekazaritza-lur aietako maiztarrak. Eta, billera aietako gala, nekazari-ekonomiari zegokiona izan oi zan.

"Elorri" aurreizki daramaten toki izenak asko dira Araba'n: "Elorri", Zua-zo-Gazteiz'ko alor bat. "Ellorbidegana", Ariñez'en alor bat. "Elorrikoa", Foronda'n. "Ellorarana", Ullibarri-011eros'en...

Gaurko Elorriaga ordea, Okoizta'tik urrutiegi dagoala derizkiot Larruki ontako Helhorriga izateko. Toki izen bat izateketoan iparraldeago, Zuya-aldean zegoan tokiren bat izango zan.

Ala ta guztiz, gaurko Elorriaga'k naiz Helhorriga zar ura non zegoan jakiteko bailo ez ba'digu ere, balio digu "H" a nola erabiltzen zan, eta izen euskaldunek nolako aldakuntzak izan dituzten jakiteko:

"Elhorriaga" agertzen zaigu 1025'ean, bere aurreneko "H" a edergaillu utsa besterik ez zala adierazi nal ba'ligu bezala. Bereala, "Hollarraga", "L" eta bere atzeko "H" a, "LL" agoskatu bear ditugula jakiñerazteko. "Helorriaga" 1333'an, eta Helorriaga 1550'ean, "H" edergailluarekin oste-ra. "Lorriaga" 1647'an eta "Lorriaga" berriro 1794'ean. "Elorriaga" ren "El" ori gaztelerazko "el" artikulua edo mugizkia zala uste izan bait zuten gaztelerazko gramatika ikasia zuten lumalari aiek.

Ori dana larruki ontan, "Helhorriga-Belhorriga" abata baten abizena ez ba'zan! "Helhorriga", ala "Belhorriga", abataren Arantza'tik Erroman Donearen elizaraiño esaten bait digu larrukiak.

Ori orrela ba'da, Arantza ura zer izan zitekean aztertzen asi bearko dugu.

Baiñan aurretik esan nal nuke beste gauzatxo bat:

"De Spino abbate" irakurri zuan Serrano'k, "Spino abbate". "Espino albar" gazteleraz, "Spina alba" lateraz, euskeraz Elorria dira. Oartu zera noski zer adierazi nai dedan: "De **spína alba** Helhorriaga idatzi naiez, ez ote zuan oartzeke "de **spino abbate**" idatzi? Orrela izatekotan, Elorriaga'ren etimologia eman nai izan zigun lateraz.

Ez dut uste. Gaiñera "de Spino de abbate" irakurri bait du Ubieto Arte-ta'k.

SPÍÑO, Araba'n, oso toki-izen ugaria dala diosku Enciclopedia General del País Vasco" k. Ain ugaria ere!!!

Ugaritasun orrek kezkatzen nau ni. Ez ote da Espino ori euskal izen baten itzulpena. Ez ote da Arantzadi, Arantzeta, Arantzatsu, Arantzai, Arantzate, Arantzegi, Arantzo, Arantzola edo orrelako zerbait, gaztelerara biurtuta?

Are geiago, ez ote da itxura galdu duan izen euskaldun bat?

Gure "Z" zitzukoia erderara maiz "S" aldaturik sartu izan dala badakigu. "Espitarte", izeneko larre bat ezagutzen dut nik Araba'ko Gereñu'n. Orrela esaten diote gaur, eta orrela esaten zion 1712'ko dokumentu batek. "Ezpizkoeta", 1335'ean zaldun napar baten abizena zan, eta Ezpitia berriz, Zuberoako abizena, Kerexeta'k dionez.

"Ezpil", "ezpela"ren aldakuntza da. Gaztelera, "boj". "Ezpel" ortatik sortuak dira beraz toki-izen eta abizen oiek danak.

"Spino"tik "ezpel" eta "ezki" oso urruti daudela, eta bi itz oiek "Spino"rekin alkartu naiean ibiltzea, katuari bosgarren anka billatu naiean ibiltzea dala? Bai, agian, baiña larruki zarretan katuari bosgarren anka billatzen saiatuko ez ba'ziña, katurik gabe geldituko ziñake.

Ñik badakit XI mendean Araba'ren ipar euskaldunean ez zezaiokeala toki bati iñork ulertzen ez zuan laterazko izen bat ipiñi. Beraz, larrukian esaten digun lez toki arren izena SPIÑO ba'zan, nai ta naiez saiatu bear-ko gera ba "katu" orri bosgarren anka billatzen. Bestela katurik gabe geldituko gera.

Baiñan katua or daga! "De SPIÑO abbate Helhorriaga".

Ñik ez dakit ziur, IX mendeko "Spino" ura zer izan zan. Bildur aundiz ausartu naiz, "ezpino", (eta "ezpi-no" ori "ezki-no) izan zitekeala esatera.

"Espí" edo "Ezpi" zer izan daitekean asmatzean dago koxka".

Ori asmatzen ba'duzu, irakurle, argiturik utziko diguzu Euskalerriko ainbeste "Espino"en izkutukia.

GAÑÑA. Gaur egun Estibaliz'tik urbil dagaon Gauna ote da? Garonna esaten zaio erri orri 1025'ean, Kukulla'ko Donemillian'en burnibarren larrukian. Bi "ÑÑ" oiek "Ñ" esaten ziralako, Garoña irakurri bear dugu Garonna ori. Orain Burgos'en probintzikoia dan, nuklear-oladun errixkaren izen bera da: Garoña. Garona, Akitani'ko ibai audiaren izena ere bada, eta Gaunas, Las Gaunas", Logroño'ko auzo batena.

Estibaliz-aldeko Gauna'ri, Gaona ere esaten zaio 1684'ean. Eta abizen ori, Gaona, bazan Araba'n 1487'an.

Bi mende leenago ordea, 1257'an, gaur bezalaxe Gauna esaten zaio dokumentu batean.

Itz oiek danak —Gaona, Garona, Garoña, Gauna, Gaunans— itz bat bera dira, eta bere erarik zarrena GAROÑA dala esango nuke nik.

"OÑA" atzizkia, (Arrona=Arritsua), ugaritasuna adierazten duan atzizkia da.

Zer ote da "GARO"? Garoa? Baiñan orrela ba'litz etimologi orrek Garona ibaiarentzat ez liguke balioko, ibaietan ez bait da garorik jaiotzen.

LEGIOÑE. "De Legionē venerunt ibi": "Leon'dik etorri ziran ara". "Legio", orain León esaten zaion uri españiarra da. "Legio VII Geminis Pia Felix" izan zuan bere jatorrizko izena. 77'garren urtean, Rin ibaieko borroka-lekutik itzulita, lejo orrek bere egoitza, gaurko León dagoan tokian ezarri zualako gelditu ornen zitzaion toki ari Legio deitura.

Lejoak zer ziran badakizu: Erroma'ren gudarozteko taldeak. 4.000'tik 6.000'ra gudari izaten zituan bakoitzak. "Geminis" itzak "bizkia" esan nai du. "Pius", "Pia", jainkoenganako, aberriaganako eta sendikoenganako

eraspentsua ta maitekorra zanari esan oi zioten. Felix, "zoriontsu" dala ez da noski esan bearrik izango.

Leon'go Jaurerriari ere "Regnum Legionis" deituko zaio beti laterazko dokumentuetan.

LETOÑÑU, esan dugu bi "ÑÑ" oiek "Ñ" dirala. Orregaitik Letoñu dugu erri aren izena.

Bañan errixka orren egiazko izena LETOÑO zala esango nuke nik, "O" errez biurtzen bait da "U", batez ere Bizkai'ko agoskeran.

"Ñ" zar orren ordeaz "Ñ" erabilliz, LETOÑA agertzen zaigu 1257'ko larruki baten. Gaur berriz LETOÑA esan oi zaio.

Araba'n Zigoiti deritzan aranean dago. Ez Gazteiz'tik urruti. XVIII menderaren azkenean Euskalduna zan, Zigoiti guztia bezala, orduango dokumentu batek adierazten digun lez. Baiñan Luis Luziano Bonaparte Printzipeak, euskal-lurretik at ipiñi zuan 1863'an.

STABELLU, "in villa Stabellu". "O" "U" biurtuta, oraingo Estabillo da Stabellu ori, Trebiño konterriko ego-mugaren alboan dagoan Araba'ko erri koxkorra.

XVI menderako galdua ornen zuan Estabillo'k euskera, baiñan eskierki euskeraz egiten zuan IX'ean, eta baita askoz geroago ere.

Beraz, larruki au IX'ean idatzi zalako, eta orduan ez gaztelerarik ez erromantzerik ez zalako, eta jendeak emen sekulan lateraz itzegin ez zualako, euskalduna izan bear du naitanaiez izen orrek; naiz, agian, late rara itzulirik egon.

Estabillo abizen euskalduna dala dio Kerexeta'k.

Lopez Mendizabal'dar Isaka'k eta Kerexeta'tar Jaime'k nai duten bezala, "EZTA" gaztelerazko "abeto" ba'litz, "BILL" ugaritasun atzizkia eta "O" atzizki toki-adierazlea diralako, Eztabaillo "Abetal" izango litzake.

"ARTE"tik edo "ESI"tik etorri daitekeala uste izatea, ura iturri urrutitxoe-tatik artu nai izatea dala iduritzen zait.

ZESTAFE. 1257'an "Cestafe". Eta 1087'an "Cestave". Azkeneko au da noski bere egiazko izena, naiz gaur jendeak Zestafe esan.

Gorbeia-pean dago, Zigoiti'n, Subialde errekatxoaren eskubian. Ubidea dauka iparrean eta larruki ontako gunea dan Akosta sarkaldean.

Zestafe'ren itxurako erri-izenik eta abizenik aski badugu Euzkadi-zear: Zestape, Zestai, Zestona, Zestata, Zestao (Naparro'an), Sestao, Zesma, eta agian Sesma naparra.

Etimologia? Ez naiz nererik ematera ausartzen. Ikus, Lopez Mendizabal'ek ematen diguna: "Z" edergaillua, + "ira" ren aldaketak diran "era", "erta", "esta", + "be" edo "pe" atzizkia. Ortaz Zestabe, "irabe", edo "garape" izango litzake. Ots, "iradi edo garadi baten azpian dagoan erria". Cestona berriz, "z" + "esta" + "ona", "Ira askoko tokia". Eta Zestao edo Sestao, "z" ala "s" + "esta" + "o" "iratoki".

Mitxelena'k, beti zailtasun orotik igesi, ez ditu izen oiek aipatu ere egiten, Sestao izan ezik. Eta ori ere, Caro Baroja españiar sutsuak Sestao laterazko "Sextano" izan daitekeala diola esateko bakarrik.

Larrukiko done-izenak eta giza-izenak aztertzeke gelditu zaizkigu. Luze goaz ordeata, beste egun baterako utzi bearko dugu eginkizun ori.

Latiegi'tar Bixente



URTEAN =URTETAN; ASKOAN =ASKOTAN

Gaur eguneko idazle askok, gramatikan ondo dakienak, "urteak" -eta aitatzean, zenbakirik sartzen bada, ta erdizka tartean sartuaz idazten dabe:

"Zazpi urtetan egon zan Ameriketetan".

Ñik ori olan ikasi neban:

"Zazpi urtean egon zan Ameriketetan".

Ta bardin gertaten da "asko" berbeagaz be:

"Urte askotan egon zan Ameriketetan".

Ta nik ori olan esango neuke:

"Urte askoan egon zan Ameriketetan".

Bear bada kontu bietan lenengo erea da jatorragoa, euskal gramatikaren arauetara obeto makurtzen dana. Baiña bigarren erea be erriak eta bai idazleak antxiña-antxiñatik erabilli izan dabeela argi dago, gero-go ikusiko danez.

Onezaz idatzi neban be; n EL DIARIO VASCO egunerokoan, bertako euskal idazle batek idatzi ebanak bidea emon da. Ta an idatzitako zati bat ona ekarriaz ia zerbait argitzen dogun.

Orain askok olantxe idazten dabe; zenbakiak dagozan esaldietan "ta" erdizkia sartzen dabe izenaren deklinabidean:

"Amabost metrotako liburua". (Ango idazle batek idatzitakoa).

"Amar urtetan Ameriketetan bizi izan zan".

Ñik errian olako euskerarik ez dot ikasi. Ba-dakit bai erriak askotan txarto berta egiten dabena, euskera ikastolarik eta nok zuzendu izan ez dalako. Euskal gramatikalari onak, Txillardegik-eta, euskera modu ori jatorra dala esan dabe, antxiñako zenbait bertsolarik eta idazlek esandakoan oiñarrituaz, SUSTRAI BILLA bere liburuan erakusten dabenez. Beraz, ez noa bere ta bere lagunen irakatsiak okerrak dirala esatera; baiña kontu onetan ortik zear esaten eta idazten dan guztia ezin ontzat emon daike-dala esatera, bai.

Ta gure jarrera artzeko badegula errezoï apur bat bada be agertu nai neuke. Ara adibidez nik idatziko neukeana:

"Amabost etxetako senar emazteak amabost metroko maian bazkaldu dabe".

Amabost etxe, ambost etxe dira, bear bada desbardiñak, bakotxa bere kontuakaz, gauza bat lez artu ezin leikezanak.

Ostera, amabost metro, neurri da, neurri bat, emen mai baten luzera agertzeko artzen dogun neurri modu konbentzionala. Bear bada denpo-reagaz, orain dekametroa, kilometroa ta abar diran lez amabost metroko neurri bat asmatuko da. Baiña, amabost etxe, amabost etxe izango dira beti.

Beraz, "amabost" orrek esaldi bietan esanai desbardiña badauko, bidezkoa dirudi desbardin deklinatea.

Bardin esan geinke "asko" itzari buruz be. Batzuk beti "askotan" idazten dabe; ta ez oraingoak bakarrik, baita antxiña be ba-ziran bigarrengo erara beti idazten ebenak".

Ñik olan bereizten ikasi dot:

"Urte askoan egon zan Ameriketean gure osaba".

"Urte askotan sagar txiki izaten da".

Au da, bietara esaten dogu, bakotxa bere kasuan. Ta onetan antxiñako geienak doguz gidari. Ikusi:

URTE (ta abar) ASKOAN

Fernando Amezketarrari erretoreak emandako erantzuna:

Jaunak urte askuan
konserba zaizala,
Fernando, zoaz etxera,
torizu txartela.

Txirrita

gusto guziak konplitu eta
ez da mundutik joango,
deseo diyot bizi dedilla
urte askoan ta ondo.

Esakera zarra

Urte askoan txapela kaskoan. (Euskalerrriaren Ya-
kintza, III, III or. Azkue)

Aita Zabala'k batutakoa:

Aziyo onen kontra jo degu Madrilla
an ere bazeguen gizon bat abilla
jakintsua dalarik, ona ta umilla
urte askuan ongi an bizi dedilla

(D. Vasco 20-9-1983)

Udarregi

aundiya da orren doaia edo
itzegiteko graziya
desiatzen dizkat osasuna ta
urte askoko biziya.

(Auspoa 56, 144 orr.)

Txomin Agirre

berari begira, urte askoan, gozotasunez zoraz-
tzen bizi;

(Kresala, 61 orr.)

Bitoriano Iraola

- ¿Zu al zera Meliton?
- Serbitzeko.
- Urte askuan. ¿Ezkondua al zera?
- Bai.

Jose Bizente Etxegarai:

etxeko jende prestu maiteak
agur onenbesterekin,
urte askoan bizi beitea
Jaunaren graziarekin.

(Auspoa 35, 244 orr.)

Txanka

Desio'izutet urte askuan
abildade ta osasuna,

(Auspoa, 59, 19 orr.)

Alzoko Imaz

Jaunak dizula urte
askoko bizia

(Auspoa 68, 344 orr.)

Laxo

Urte askoan etzuten
izan kriaturarik

(Auspoa 79, 359 orr.)

Juan eta Pello Zabaleta

bertso onekin agurtzen dizut
zergaitik dijuan luze,
urte askuan osasunakin
Emeterio Arrese.

(Auspoa 63, 69 orr.)

Uztapide

gura Jainkoak urte askoan
osasuna diotela.

Agirre

Urte askoan joan naiz iñuterico dantzetara. (Eracusaldia) (Goiko au, Agirre'rena barik besteren batena izango ete dan nago, bada bera josulaguna edo abadea izanik dantzetara gitxi joango zan. Dana dala, ori nik olan ipiñiko neban:

Urte askotan joan naiz
iñuterico dantzetara.

URTE ASKOTAN ondo, nire ustez

Ondorengo iru esalditan "urte askotan" esaten da ta ondo, nire ustez.

Iturriaga

Ñekazarieri ematen dio indar andia ele berea izateak; baña sagastiak eta gaztañadiak beaute egon erdira; zergatik urte askotan batere ez dute ematen.

(Auspoa 25, 62 orr.)

Anduaga

Ijitoakin ondo konpondu
trukean asto ta beor,
urte guzian egun askotan
aitzeki gutxikin opor.

(Auspoa 59, 78 orr.)

Txanka

San Ñikolasek urte askotan
egiten ditun morubak,
ekartzen ditu banderak eta
berebiziko dirubak.

(Auspoa, 59, 78 orr.)

URTE ASKOTAN Ez ondo nire ustez

Ondoren datozen iru-lau esaldiotan "urte askotan" esaten dabe euske-
ra ondo ekien antxiñakoak; baiña nik orreitan edo orreik lakoetan, "urte
askoan" ipiñiko neuke.

Azkue

Aurrerantzean, "Txalin", ugazabak anoa (janaria) geituta, nai baiño obe-
to ta urte askotan, oparo ta gozaro bizi izan zan.

(Jolasketa, 497 orr.)

Ramos Azkarate

Bizitu zaite urte askotan
gaitzikan gabetanikan.

(Auspoa 7, 20 orr.)

Kaletar batek Anduaga'ri erantzuten egindakoa da goiko bertsoa:

Urte askotan zure baserrin,
aitona bizi izan zaite,

Jose R. Zubillaga

Azkarate'n morroi urte askotan egon zana,

(Auspoa 40, 17 orr.)

Kardaberaz

Eskola orietan ogei urtetan maisu onek Erretotorika jende gazteai txit
ederki erakutsi die.

(Auspoa, 35-37 orr.)

Aita Batolome

Baquidaz Vizcaijan, eurak zinuenez, piesta egun bacoheco castuba eun ducategaz eguiten eztaben baserri echeac. Ta ori urte ascotan.

(Euscal Errijetako, 96 orr.)

...ainbeste urtetan garbi eta penitente bizi.

(Sustrai Billa)

A. Zubikarai

Gizon ixilla, zurra, langillea, naigabe bako irriparrea beti espanetan, Bilbon San Anton parrokiko euskal mezetan erriaren gidari urte askotan.

urte askotan aita Mokoroa'ren lagun izan zan.

(Deia, 14-2-83)

URTE ta abar denpora izenak zenbakia daroenean

Ikusi daigun "urte" ta abar denpora izenak zenbakia daroenean zelan esan izan diran.

Ondoren datorren lenengo saillean nik ikasi dodan lez:

Gabon Kanta

Linbuan egon zan
lau milla urtean
Jesus zerutik lurrera
jatxi artian.

(Ondarru'ko Gabon kantea)

Bilintx

Pena ori degula
biotzen betian,
zuengandik biagu
egon apartian,
ez eunki osuan,
ez ogei urtian,
baizik eta Paskuak
etorri artian.

(Auspoa 12, 30 orr.)

Txirrita

Arbola eder bat dala meriyo
jartzera nua bertsuak,
milla urtean mantendu gaitu
lau probintzia osuak. -

Iturriaga

Zortzi egunean gazitzen egon ondoren garbitu bear da eskuz ur epel beroarekin.

(Auspoa 25, 30 orr.)

Uriarte

Zazpi egunean jango dituzu, aguindu dizudan becela frutu berrien illaren demboran.

(Biblia, 90 orr.)

Txomin Agirre

Arranondotarrak, bi edo iru illabeteen erbestetik atunetan ibillita, irabazi politagaz etorri dira etxe aldera.

(Kresala, 31 orr.)

J.A. Mogel

Ñi egon naz Madrilgo ospitalian urte bijan.

(Peru Abarka, 30 orr.)

P.M. Urruzuno

Egia al da iru illabeteen preso egon zerala?

(Auspoa 5, 67 orr.)

T. Alzaga

Iru urtean ez zaitu geiago ikusiko.

(Auspoa 6, 52 orr.)

P. Errota

Ezkontza egin nuen
lengusu batekin,
bi urtian tratatu
degu alkarrekin

(Auspoa 33, 64 orr.)

Udarregi

Belengo portalian
Jesus jaio baitzan,
beartasun aundiyan
ez dudarik izan;
oñaze neke asko
arturik bizi zan,
ogei ta amairu urtian
emen ibilli zan,
gu salbatziagaitik
gurutzian il zan.

Jose B. Etxegarai

iñon gelditu gabe
sei illabean,
gaur Donostiyan daude
zoriyon gurean.

(Auspoa, 35, 43 orr.)

R. Azkarate

Zortzi urtean nork daki
zer kezka degun eduki,
ezin ikusi, ezin itz egin
eta bestetik urruti.

A. Apaolaza

Beste ordu bian ez zan geldituko Mariyan iturria, bezero bat etorri ez balitz arrautz tratura.

(Auspoa 8, 111 orr.)

B. Iraola

- ¿Zein da Martin?
- Ñere lengusua; Santanderren txokolatero ikasten egona lau illabetian.

Alfontso ^{M.} Zabala

Ume kozkor batzuek korrika-apostua dutela, ta zortzi egun ori esaten.

Ramon Artola

Iru orduban nabil zoratzen
aruntz joan onuntz jira
lengo emengo etxeak eta
gauzak non diran begira

(Auspoa 1, 85 orr.)

Pepe Artola

goiz goizetik asita
gau bitartian,
biba Donostiya
beste milla urtian.

(Auspoa 4, 80 orr.)

Frantzisko Goñi

denak engañatu ziralako, beste iru urtean ezer esan gabe itxedon zuen;

(Auspoa 20, 94 orr.)

Aizkolariak liburua

Triste bizitu zan bi edo iru urtean beintzat.

(Auspoa 23, 20 orr.)

G. Anduaga

ongi porta dalako
orain arte guzian
seguru dago beste
ogei ta bost urtian

Jose R. Zubillaga

ta Arrapielek ere bazuen borda bat, goiko Sorgin-putzu inguru artan, bost edo sei illabetean itzala egoten dan toki artan.

(Auspoa 40, 26 orr.)

Uztapide

Zestuan bizi izandu naiz ni
berrogei bat urtian.
Jayo nintzaden egunetik
orain sei urte artian

(Auspoa 42, 16 orr.)

Basarri

Lau urtean kargua euki dutenak ikusi dituzte bereak eta bi.

(El Diario Vasco, 29-4-1983)

Kamiñazpi



AETZEN USKARAS

NOR NORI BALDINTZAZKOAK

BALDINTZA

ni yiri
ni gari
ni zuri
ni ze
ni gaei

yi niri
yi gari
yi guri
yi gaei

gura niri
gura yiri
gura gari
gura guri
gura zuri
gura ze
gura gaei

gu yiri
gu gari
gu zuri
gu ze
gu gaei

zu niri
zu gari
zu guri
zu gaei

banintzaita, -na
banintzeio
banintzeizu
banintzeizie
banintzeie

bayintzeida
bayintzeio
bayintzeigu
bayintzeie

balitzeida
balitzeita, -na
balitzeio
balitzeigu
balitzeizu
balitzeizie
balitzeie

bagintzaita, -na
bagintzeio
bagintzeizu
bagintzeizie
bagintzeie

bazintzeida
bazintzeio
bazintzeigu
bazintzeie

ONDORIOA

nintzaitake, -nake
nintzeioke
nintzeizuke
nintzeizieke
nintzeieke

yintzeidake
yintzeioke
yintzeiguke
yintzeieke

litzeidake
litzeitake, -nake
litzeioke
litzeiguke
litzeizuke
litzeizieke
litzeieke

gintzaitake, -nake
gintzaioke
gintzeizuke
gintzeizieke
gintzeieke

zintzeidake
zintzeioke
zintzeiguke
zintzeieke

zek niri
zek gari
zek guri
zek gaei

bazintzeidate
bazintzeiote
bazintzeigute
bazintzeiete

zintzeidateke
zintzeioteke
zintzeiguteke
zintzeieteke

gaek niri
gaek yiri
gaek gari
gaek guri
gaek zuri
gaek ze
gaek gaei

balitzeizkida
balitzeizkita
balitzeizkio
balitzeizkigu
balitzeizkizu
balitzeizkizie
balitzeizkie

litzeizkidake
litzeizkiake, -nake
litzeizkioke
litzeizkiguke
litzeizkizuke
litzeizkizieke
litzeizkieke

NOR NORK BALDINTZAZKOAK

BALDINTZA

nik yi
nik gura
nik zu
nik zek
nik gaek

bayinduda
banu
bazinduda
bazinduztet
banitu

yik ni
yik gura
yik gu
yik gaek

baninduta, -na
bayu
baginduta, -na
bayitu

garek ni
garek yi
garek gura
garek gu
garek zu
garek zek
garek gaek

banindu
bayindu
balu
bagindu
bazindu
bazinduzte
balitu

guk yi
guk gura
guk zu
guk zek
guk gaek

bayindugu
bagindue
bazindugu
bazinduztegu
baginduze

zuk ni
zuk gura
zuk gu
zuk gaek

baninduzu
bazindue
baginduzu
bazinduze

ONDORIOA

yinduket
nuke
zinduket
zinduzketet
nuzke

ninduketa, -na
yuke
ginzuketeta, -na
yuzke

ninduke
yinduke
luke
ginduzke
zinduzke
zinduzkete
luzke

yindukegu
ginduzke
zinduzkegu
zinduzketegu
ginduzeke

nindukezu
zinduke
ginduzkezu
zinduzeke

zek ni	baninduzie	nindukezie
zek gura	bazindute	zindukete
zek gu	baginduzie	gindukezie
zek gaek	bazinduzte	zinduzkete
gaek ni	banindute	nindukete
gaek yi	bayindute	yindukete
gaek gura	balute	lukete
gaek gu	baginduzte	ginduzkete
gaek zek	bazinduztete	zinduzketete
gaek gaek	baluzke	luzkete

NOR NORI NORK BALDINTZAZKOAK

BALDINTZA

ONDORIOA

nik gura yiri	banauta, -na	nautake, -nake
nik gura gari	banako	nakoke
nik gura zuri	banauzu	nauzuke
nik gura ze	banauzie	nauzieke
nik gura gaei	banee	neeke
yik gura niri	bayade	yadeke
yik gura gari	bayako	yakoke
yik gura guri	bayagu	yaguke
nik gura gaei	bayaye	yayeke
garek gura niri	balaztat	laztadake
garek gura yiri	balaztak, -n	laztaake, -nake
garek gura gari	balazta	laztake
garek gura guri	balaztagu	laztaguke
garek gura zuri	balaztazu	laztazuke
garek gura ze	balaztazie	laztazieke
garek gura gaei	balaztate	laztakete
guk gura yiri	bagindauta, -na	gindautake, -nake
guk gura gari	bagindako	gindakoke
guk gura zuri	bagindauzu	gindauzuke
guk gura ze	bagindauzie	gindauzieke
guk gura gaei	bagindaie	gindaieke
zuk gura niri	bazindade	zindadake
zuk gura gari	bazindako	zindakoke
zuk gura guri	bazindagu	zindaguke
zuk gura gaei	bazindaie	zindaieke

zek gura niri	bazindadate	zindadakete
zek gura gari	bazindakote	zindakokete
zek gura guri	bazindagute	zindagukete
zek gura gaei	bazindaiete	zindaiekete

gaek gura niri	balaztate	laztakete
gaek gura yiri	balaztanate, -take	laztanakete
gaek gura gari	balaztaote	laztaokete
gaek gura guri	balaztagute	laztagukete
gaek gura zuri	balaztazute	laztazukete
gaek gura ze	balaztaziete	laztaziekete

NOR NORI NORK BALDINTZAZKOAK

BALDINTZA

ONDORIOA

nik gaek yiri	banauzkita, -na	nauzkitake, -nake
nik gaek gari	banazkio	nazkioke
nik gaek zuri	banauzkizu	nauzkizuke
nik gaek ze	banauzkizie	nauzkizleke
nik gaek gaei	banezkie	nezkieke

yik gaek niri	bayazkide	yazkidake
yik gaek gari	bayazkio	yazkioke
yik gaek guri	bayazkigu	yazkiguke
yik gaek gaei	bayazkie	yazkieke

garek gaek niri	balazkitat	lazkitadake
garek gaek yiri	balazkitak, -n	lazkitaake, -nake
garek gaek gari	balazkita	lazkitake
garek gaek guri	balazkitagu	lazkitaguke
garek gaek zuri	balazkitazie	lazkitazieke
garek gaek gaei	balazkitae	lazkitaeke

guk gaek yiri	bagindauzkita, -na	gindauzkitake, -nake
guk gaek gari	bagindazkio	gindazkloke
guk gaek zuri	bagindauzkizu	gindauzkizuke
guk gaek ze	bagindauzkizie	gindauzkizieke
guk gaek gaei	bagindazkie	gindazkieke

zuk gaek niri	bazindazkide	zindazkidake
zuk gaek gari	bazindazkio	zindazkioke
zuk gaek guri	bazindazkigu	zindazkiguke
zuk gaek gaei	bazindazkie	zindazkieke

zek gaek niri	bazindazkide	zindazkideke
zek gaek gari	bazindazkiote	zindazkioteke
zek gaek guri	bazindazkigute	zindazkiguteke

gaek gaek niri	balazkidate	lazkidateke
gaek gaek yiri	balazkitate, -nate	lazkitateke, -neke
gaek gaek gari	balazkitaote	lazkitaoteke
gaek gaek guri	balazkitagute	lazkitaguteke
gaek gaek zuri	balazkitazute	lazkitazuteke
gaek gaek ze	balazkitaziete	lazkitazieteke
gaek gaek gaei	balazkitaete	lazkitaeteke

AGINTERA

NOR

Izan	Egon	Fan	Etorri
ya	nagola	naela	natorla
deila, daila, bedi	yago	goaie, gaie, gae	ator
zite	dagola, bego	daela	datorla
ziezte	gaudela	gazen	etor gitela
ditela, bitez	zaude	zaza	zatoz, zato
	zauzte	zazte	zatozte
	daudela, beude	dazela	etor ditela

AGINTERA

NOR NORI

ni yiri	nakik, -n	zu niri	zitezakida
ni gari	nakio	zu gari	zitezakio
ni zuri	nakizu	zu guri	zitezakigu
ni ze	nakizie	zu gaei	zitezakie
ni gaei	nakie		
yi niri	yakida	zek niri	zitezakidate
yi gari	yakio	zek gari	zitezakiate
yi guri	yakigu	zek guri	zitezakigute
yi gaei	yakie	zek gaei	zitezakiate
		gaek niri	dezkida
gura niri	dekida	gaek yiri	dezkik, -n
gura yiri	dekik, -n	gaek gari	dezkio
gura gari	dekio	gaek guri	dezkigu
gura guri	dekigu	gaek zuri	dezkizu
gura zuri	dekizu	gaek ze	dezkizie
gura ze	dekizie	gaek gaei	dezkle
gura gaei	dekie		
gu yiri	gitezakita, -na		
gu gari	gitezakio		
gu zuri	gitezakizu		
gu ze	gitezakizie		
gu gaei	gitezakie		

AGINTERA

NOR NORK

nik yi	aztat	zuk ni	naztazu
nik gura	zada	zuk gura	zazu
nik zu	zitzat	zuk gu	gitzazu
nik zek	zitzatet	zuk gaek	zkizu
nik gaek	zkida		
		zek ni	naztazie
yik ni	naztak, -n	zek gura	zazie
yik gura	zak, -n	zek gu	gitzazie
yik gu	gitzak, -n	zek gaek	zkizie
yik gaek	zkik, -n		
		gaek ni	naztate
garek ni	nazta	gaek yi	aztate
garek yi	azta	gaek gura	zate
garek gura	zala	gaek gu	gitzate
garek gu	gitza	gaek zu	zitzate
garek zu	zitza	gaek zek	zitzatee
garek zek	zitzate	gaek gaek	zkite
garek gaek	zki		
guk yi	aztagu		
guk gura	zagun		
guk zu	zitzagu		
guk zek	zitzategu		
guk gaek	zkigu		

AGINTERA

NOR NORI NORK

nik gura yiri	dazatat, -nat	dazkitat, -nat
nik gura gari	dazot	dazkizot
nik gura zuri	dazut	dazkizut
nik gura ze	daziet	dazkiziet
nik gura gaei	dazet	dazkiet
yik gura niri	daztak, -n	dazkitak, -n
yik gura gari	dazok, -n	dazkizok, -n
yik gura guri	dazoguk, -n	dazkiguk, -n
yik gura gaei	dazek, -n	dazkizek, -n
garek g. niri	dazta	dazkita
garek g. yiri	dazak, -n	dazkizak, -n
garek g. gari	dazo	dazkizo
garek g. guri	dazagu	dazkizagu

garek g. zuri
garek g. ze
garek g. gaei

dazazu
dazazie
daze

dazkizazu
dazkizazie
dazkize

guk gura yiri
guk gura gari
guk gura zuri
guk gura ze
guk gura gaei

dazaagu, -nagu
dazogu
dazazugu
dazaziegu
dazegu

dazkizaogu
dazkizogu
dazkizazugu
dazkizaziegu
dazkizegu

zuk gura niri
zuk gura gari
zuk gura guri
zuk gura gaei

daztazu
dazozu
dazaguzu
dazezu

dazkitazu
dazkizozu
dazkizaguzu
dazkizezu

zek gura niri
zek gura gari
zek gura guri
zek gura gaei

daztazie
dazozie
dazaguzie
dazezie


dazkitazie
dazkizozie
dazkizaguzie
dazkizezie

gaek g. niri
gaek g. yiri
gaek g. gari
gaek g. guri
gaek g. zuri
gaek g. ze
gaek g. gaei

daztate
dazaate, -nate
dazote
dazagute
dazazute
dazaziete
dazete

dazkitate
dazkizaate, -nate
dazkizote
dazkizagute
dazkizazute
dazkizaziete
dazkizete

Jarraitzeko
Josu Cabodevilla





GOI-YAKINTZA'RUNTZ URBILTZEKO NAYEAN EUZKERAZ EGINDAKO UÁATS TXIKIAK. IRUDIMENA

Irudimena gure baitan dugun beste almena da, ta gure baitan bakarik ari da ibiltzen, igitzen, ari-izaten. Ez da iñoiz ere guregan jokutzen, iñola be ez du guregan dagoen ezer ikutzen; beraz, oso-osea gure baitan bizi da, gogoaren almena bezela.

Zer da, bada, Irudimena? Gertatzen diran gauza batzuk irudi berezietaz ikusten eta begiratzen, baña batez ere gertatzen ez diranak gure oldozmanaren oar-erazten, bizi-irudi egokiaz aurkezten, gai-jantzi az inguraturik bailiran erakutsi naye an, baña egitan amets utse an geratzen diralarik. Oldozmene an gogo-biziaz bakarik elikaturik.

Bai, Irudimena almen bat da, gure baitan bakafik ari dan almena. Ez du beste gogo-almenekin ezertarako yarduten; azke da ta iñoiz ez du araurik, ez egokitasunik, ez adionik jaraitzen; eroa dirudi, ziorik gabe asten, jaaitzen eta amaitzen eta eztu zuzenbiderik onartzen. Oldozmena erabiltzen du bakarik agertzeko bidetzat artzen, baña berarekin ere beste a emanik artzeke. Beraz, adimena, oldozmena, oroimena ta beste men guztiak bezela, gure baitan guztien Egiteak berak ja itako legeaz men berezia ikus da.

Irudimenak gure oldozmenera ta ezagumerera be iñun eta iñoiz jazozen ez dan bizi bereziaren befia ekartzen digu, ta berari eskef bizi bakan orén zeatzak ematen dizkigu bizi-bizirik izango bailiran, eta irudi pean gagozene an gure gogoa naranai doakigu berarena ez dan bizi baten barna, ta askotan bidezkoak ez diran bideetan zeaf.

Egitan ez da ondo ulertzen irudimena; nolabait ulertzeko gure adimenak eutsita izan beaf-izango litzake, baña ez adimenari ez ezeri be ez dio burua makurtzen, eta bere jira-biran jafaitzen da beti bere jokera eroan ibiltzen. Nola ulertu, alakotz, men igoko a ta ibilkofa dan ori? Ezin, ulertzeko zearo eziña. Baña bizi da, geron batan bizi da, ari da, ta bera aztertzeko indafaz erakartzen gaitu.

Irudimenaren jokera berezi-berezia da, mugarik gabeko jokera, gure baitan irudiak soferazteko ari dan mena, gure oldozmenean eraturik edo kokaturik uzteko; ezin beste edonun ofelakorik egin, beraz beata du oldozmena bere egipena burutzeko.

Irudi oyek, noski, onak atsegiñak, begikoak izan ditezke, baña bai ta, alderantziz, txa ak, atsekabeak, iguinga iak ere; lenengoen bidez nolabaiteko poza artzen dugu, ta bigafenak itunga iak izaten zaizkigu. Ofengatik gure gogoarentzat egokiak ala ezegokiak izan ditezke, ta alde ortatik irudimenaren egipena ez da zearo alpefik izaten eta bere ondorioak uzten ditu, ala beafean, geyenetan, beti ez esateko, egokitasunik gabe agertuaten.

Irudimena edonoren baitan ari diteke ta egitan beti ari da, eten gabe, era berean yarduten; alarik ere batzuentzat geyago ta biziago agertzen da, ta geron ustez ezin izan diteke ori argi ikusteko ziorik azaltzea, era batean ala bestean zergatik gertatzen dan ofela ain zuzen almen ofek ezerekin a emanik ez duelako. Ofengatik oso zalla bezela ikusi bea dugu irudimenaren izaera zeatzez eta ongi atematen. Ezin, ostera, gure baitan ari dala ukatu.

Alan eta guzti, noiz edo noiz, irudimenak guk egindako edo oldoztutako zerbaiten inguruan agertzen zaigu, ta ofela izanik bidezkoa dirudi gure egipenen edo oldozpenen ondorioa bezela agertzen dala ustea, baña ortaz beafezkorik ikusi eziñean. O ela be, irudimena iñungo araurik ja aitezke ari dala bayeztu egin beaf.

Batzuetan irudimenak ez ezagunak eta safi ametsezko tokietara eramaten gaitu ta iñoiz jazo ta ikusi ez diran azpegiak egizkoak izango bailiran erakusten dizkigu. Ñola ta zergatik gertatzen da itxura utsa dan ori?; zalla dala deritzaigu erantzun egokia galdera o i ematea; alaxe, ofengatik ofelakoai ametsak edo irudikeriak dei-egiten dizkiegu. Baña gertatze ori edonorengan jazo diteke; irudimena azke jokutzen, ezerk eragin gabe, berez dagokion jokaera betetzean. Ofela argi erakusten digu gurea izan diteken beste gogo-almenarekin a emanik eztuela; alakotz, guztiz loka-bea lez iritzi beaf dugu gure baitan ari dan almen au.

Etekiñik eman ote dizaiguke irudimenak? Batzuetan bai ta ez txikia gañera. Ertilarentzat, batik bat, oso laguntza aundia ematen du, erti-lanak irudimenaren semeak bezela ikustea, ongi ulertzeko ta atemateko be, bea a dalako. Irudimen aundikoa dala esaten da ertilari oni ala ari buruz, eta erti-lanak bezela onartzeko ezinbestekoa dala dirudi irudimenezkoak izatea, ofela ezpada nun-nai gauza a unta bezela begiratzen dalako ta aipaga itzat iñork onartu gabe geratzen da. Egitan, erti-lanak so erazteko, irudimena baitezpadakoa agertzen zaigu; ta ofela izanik etekin aundi ta edefa ematen digula esan beaf da.

Ñoski, batzuetan ere, kaltega ia izan diteke irudimena, arazo zeatzetan, gauzak, berak diran bezela, begiratzen eta erabiltzen ezinbestekoa dalako, ta oyetan irudimena sartzen bada, geyenetan oso kaltegrafia izan ditekkelako.


Ametsak izaten dira, irudimena ari-izateko, bide egokienetakoak, lotan egiten diran ametsak batez ere; ta ametsak irudimenaren ondorioak bezela ikusi ote ditezken galdetu dezakegu; ala irudimenak ain zuzen sortu-

ta? Oía o , gureztat, argi ikusten ez dan gertapena. Guztiok egin ditzakegu ametsak lotan gagozenez, ta, bearbada, egokiena izango litzake gertapen ori onela jazoten dala esatea: Ametsak, lotan izaten diran ametsak, zio batengatik ala ziorik izan gabe, gure baitan sortzen dirala, baña gure naimenetik at beti. Jakiña, lotan gagozenez gure almen guztiak lotan ere, irak lez geratzen zaizkigu, ta o engatik ez da ongi ikusten nola edo zergatik gertatzen diran ametsak; alaz ere ortxe dagoz edonoren baitan yarduten. Ez dira gauza bere ametsak eta irudimena, baña lagun onak, oso onak, bai bederen, beren jokera berbera balta, ta bietatik sortzen diran irudiak ia berdiñak dirala atematen dalako.

Irudimenaren gertapena aztertzean ongienik oa diteke geron baitan dugun gogo-bizia nolako nabari ta zabala dan, ura azke ta ezefenpean gertatzen dalako; berez, irudimena gure baitan berez bizi ta ari dala ikusten da argi, almen azke bezela ta beste almenekin bea ezko afemanik ukan gabe. Ametsak, aitzitik, ba-dute zer ikusi geron baitan dauzkagun beste almenai buruz, batik bat oroimenari buruz. Ofela, geyenetan, beti ezpada, gure au eko bizian gertatu zaizkigun goraberak eta ezagutu ditugun notiñak agertzen dira, lotan o elakoak erabiltzen, ametsak egiten ditugunean. Alaz ere, geyenetan, ametsetan gogoratzen ditugun notin eta gauzak nastuta agertzen dira, oyen artean bizian izaten ez dan a emanen. Zer dala-ta?, orixe bai dala zara atemateko; nolabait irudimena ortan sartzen dalako?, nork esan?, oso zara iruditzen baita ori zeatzez ikustea. Agian bai, ori gerta ditekela uste dezakegu; ba-dirudi ametsetan notin ezagunak eta gauza afuntak agertzen diranean, irudimena oyetan ari ez dala, baña ametsetan irudikeriak sortzen badira, ustekoa da artarako irudimena eragirea dala; ta ofela izan ezkeru, argi agertzen da irudimena, gogoaren beste almen guztien antzeko, lotan geratzen ez dala, ta ortik atera dezakegu, bidezko ondorioaz, irudimena gure baitan azke ari dala, beste almenetatik azke; beraz, egitan, berez gogo-almen bat dala adierazten.

Dana dala, irudimena, ametsak eta oroimena, geron baitan, bakoitza bere aldetik, ala noizpait alkartzean ari zaizkigu gure gogoaren bizian barna, batez ere lenengo biak. Baña lenengoa da baka ik gogoaren almena bezela agertzen dana, oso almen bedegafa.

U estarazu'ta Andoni



ESALDI JATORRAK

Yon etorri zan ÑOSKI?
BALDIÑBETAÑ...

Datorren astean auteskundeak!
Ai PASIAK BA'LEUDE...

Zamarra orregatik, zenbat KEÑDU dizute?
Ainbeste.

Ainbeste? Ori LAPURRETA BIZIA DA.

Ain berandu ETXERATZEKO, OKERREÑ BAT gertatu al zaizute?

Biarko ere eguraldi txarra OMEÑ DEGU-BA...

Bai! ITXURAK ala dira.

Taberna ontan JATEÑ EMATEÑ al dute?

Bai! Ematen dute.

Alako, oso gaxo ornen dago. Ilko ote da?
EZ BALDIÑBETAÑ!

Gaur ere, Mikel EZ GAIÑEKO senide guztiak emen giñan...

— ASPALDIKO! Bizi al aiz?

— BEAR-GORRIAN bizi da.

— Eriotza BER-BERA baiño GAITZAGOA. (Latiegi'k Saski Ñaski'n)

— ÑEGU-ÑEGUKO aize otza dabil GERO...

— Ñorbaitek GAZTETU EDERRA eman dik... Zein medikukin abil?

(Sindika'ko Pedro'k)

— Etxea. UTSEAN erosi zuan; JAÑTZITA, etzan milloira iritxi eta...

(Sindika'ko amonak)

— ESKU-UTSIK ez joan BEIÑTZAT! Zerbait ba'da ere, eraman. (Pitxu'k)

— OTZAK PASIA etorri naiz.

— BERTAN BERA uztea erabaki zan.

— Egun osoan ATERTU GABE egon da!

— AU DA AU BOTATZEA! AU DA BOTA BEARRA! (Eudia GOYAN-BIAÑ ari duala).

— Gaur arratsaldean TRUMOYAK JO DU! (Bernardino'k)

Larunbat-igandea uda-lekuan igaro ondoren:

— Mezarik izan ote dute GERO?

— Bai! Izan ornen dute!

— ÑOBATTE-OR!


— Zartzen ari zeran bezela, zure attaren YURYA bera artzen ari zera.

— A zer BELARTZAK izango diran aurtent!

(Deba aldeko emakume batek trenean)

— Tximista legorrak dira.

**Zarautz, 1991'ko loraillean
Mañu Oñatibia**



EUSKALDUNAK MUNDUAN: XABIER

Agramontar naparrak, gaskoiñ eta Frantzesak lagun dituztela, Erronkari-tik sartu dira Iruña-ko bidean, berau artzeko asmoetan, Kastillaren men-pean bait dago. Enrike Labrit, errege naparra dator eurokin.

Laister eldu dira Xabierreko gaztelura eta bertako jaunak atek iriki diz-kio, pozak zoratzen, bera izanik Ñapar Konseilluren maiburu Erregearen serbitzuan eta semeak ditu gudaroste orretan. Gazteena, Franzisko, gaz-teetxo oraindak gudarako, amabost urte bete berriak bait ditu, bera atera-da gaztelutik, txakurrak lagun ditula, soldaduen bidera.

Xabier gazteluko jauna Joan de Jaso Atondo degu eta etxeoandrea, berriz, Maria Azpilkueta Arnarez. Biak daude etxe-atarian gudarien zai. Txaloka artzen dituzte erri guztiek, askatasuna dakartelako eurekin batera. Izan ere Kastillako Fernando errege aragoitarra menperatu berria du Ñaparro osoa. Izan ditu artarako lagunak bai Lerin'go Konde Beau-montarra eta baita ere Ñajera'ko Kondea. Auxe izenda dute Errege-ordezko eta onen serbitzurako etorri zan Iñigo Loiolatarra Arevalo'tik. Gipuzkoan da lagun-billa joana Iruña defenditzeko asmoetan. Franzisko zan Xabietarren seigarren semea eta Iñigo, berriz, Loiolatarren artean amairugarrena. Biak alkartuko dira egunen batean; baiña gaurko onetan, 1521 garren urtea aurrera dijoala, aurka jokatuco dute...

Artu zuten Iruña eta bai laister galdu ere. Ondorenak ez ziran alaiak Xabietarrentzako: kartzelak, desterruak, eriotzak... Ondamendia. Franzisko-ri ez zaio sekulan aartzuko arazo au. Aita ere laister il zan ezbear auen ondorioz.

Franzisko 1506'garren urteko apirillaren 7'an jalo zan eta emeretzi urte beterik, abiatu zan Paris'era Sorbona Ikastetxe Ñagusian ikasketak egite-ko asmoetan. Amaika urte pasa bear izan zitun Maixutasuna lortzeko, naiko naigabeen artean, ez bait zeuden etxe-koek gastu aundiak jasotze-ko eran gerrako ondamendiaren ondoren.

Paris'en Loiolatar bat ezagutu zuan. Euren aurka burrukatutako gizona. Gerrate artan erren gelditua: Iñigo. Gogoramen txarrak zerkarzkion burura erren arrek: gazteluko dorreak desegiñak Cisneros'en aginduz, kartzelak eta desterruak, ondoren aitaren eriotza eta beranduago, tristuraren poderioz, amarena ere bai. Gorroto zion bere etxearen kaltean eta Kastillaren onean jokatu zuan gizon arreri.

1530'garren urtean, martxoaren 15'an, lortu zuan Xabierrek Lizanziado titulua, Iñigo Paris'en agertu eta bereala. Beste lau urte bearko zitun Maixutasuna lortzeko.

Bitarte artan Iñigo ari zitzaion ondotik; adiskidetasuna nai. Ñaparra, loiolatarrak biotz-biotzetik eta bene-benetan lagundu zion bai diru-emaitzez eta baita ere berarentzat ikasleak billatzen.

Ñapar maixuak ames ederrak egiten zitun bere kolkorako; eguraldi txarrek alde egin zioten bein betirako eta andik aurrera aberastasunarekin batera ospea eta aginpidea espero zitun bere bizitzan. Geroz eta geiago izan; geroz eta geiago euki...

"Zertarako du gizonak lur osoa irabaztea...?" Ebanjelioko itza auek bein eta berriz Iñigok aldamenetik. Xabierrek, musin; ez zuan orrelako mintzorerik entzun nai. Baiña, ur tantoak ere ekin eta ekin, aizkenerako arria zulatutu...

Iñigo'ri ez zitzaion beste iñor orrenbeste kostatu, berak zionez. Egurrik trinkoena eta burnirik gogorrena; aizkenean, ordea, Loiolak bere elburua lortu eta bere asmoak nagusi.

Ejercicio edo Gogo-jardunik egin ez arren oraindik, Iñigoren bidetik jarraitzeko prest zegoen. Artea baiño gogorragoko espiritu aretan landutakoa, iraungo zuan sekula sekulotan.

1532'ko iraillean egin zitun illebeta osoko Ejercicioak bera bakarrik etxetxo batean. Iñigo joaten zitzaion ikustera maiz; baita beste bere lagunek ere. Arin-ariñiketan eta saltari oso jaio zan eta bizkorra gure mutil gazte naparra eta orren aurka egite arren edo, bere besoak eta zangoak lotu zitun lokarriz eta ez arrisku barik; ia-ia besoa moztu bearrean izan ziran. Lau egunez barau eta aldameneko elizatxo batean egunero Meza entzun; geroago ondorengo ordu luzeak otoiitzean eta ausnarrean...

Andik, beti bezin bizkor eta alai, baiña "barrutik zearo aldatuta" irten zuan. Arrezkero beti liburutxo ura, Ejerciziotakoa, berekin eramango du munduko baztar guztietara. Iñigok asmatutako liburutxoa. Arekin Iñigo'ren ganako maitasuna goi-maillak arrapatuko ditu, zorabiatzeko moduan, "Ñere biotzeko Aita" esango dio bein eta berriz eta, bere ustez, arrazoi guztiekin beronen bidez aurkitu bait zuan bere biotzean Jainkoaren mintzaira. "Ñene biotzeko Aita Kristo'gan".

Urte artako urrillean, Ejercicioak egin ondoren, Xabier eta beste bere lagun guztiak, bakoitza bere ikaskintzak egitera, Ikastola Ñagusira. Bi urte falta zitzaizkion Xabierreri Maixutasuna lortzeko. Talde osoak lortuko du bakoitzak bere Maixutasuna. Zazpi ziran eta zazpirak Unibersitateko Maixuak. Gerora, Jesus'en Konpañia sortu-ta gero, auen goitizena "Paris'ko Maixuak" izanen da.

Maixutasuna Xabierrek 1534'garren urtean lortu zuan.

Gogo-jardunak arrakasta aundia izan zuten Xabierrengan; baiña, beste asko eta askorengan ere bai. Eurak izan dira biotz-barruak aldatzeko era egoki bat naparrarentzat bezala, beste lagunentzat ere bai.

Monmartreko botoa

Parisko zazpi Maixuek (Láinez, Fabro, Rodrigues, Salmerón, Bobadilla, Iñigo eta Xabier) bere botoa egin zuten Abustuaren 15'an, Ama Birgiñaren Jasokundeko egunean, Xabierrek Gogo-jardunak egin baiño illebate lenago. Fabro zan apaiz bakarra eta berak eman zuan egun artako Meza. Jauna artu aurretik, banan banan, Jainkoari beuren buruak eskeiñi zizkioten botoaren bidez pobrezian eta garbitasunean, beartsuen alde lan egiteko.

Pakean biotzak, pozetan igari.

Ez zan une aretan Jesus'en Lagundiarik sortu oraindik; baiña oiñarriak ipiñitak zeuden. Bi urte buruan berritu zuten botoa. Iñigorik ez zan tartean eta bere ordeaz beste iru lagun berri Fabrok ekarriak: Jay, Broet eta Codure.

1532'garren urte onetan Xabier ez zan oraindik Maixu; lenago esan degu 1534'an lortu zuala eta andik iru urtera, 1537'ko ekainaren 24'ean apaiztu zan. Irailean, Landibar euskaldunak, Xabierren morroi izandakoak, lanik gabe gelditu zalako, sekulakoak esan zitun Iñigo eta bere lagunak aurka, egien artean gezur galantak naasturik.

Iñigok garbitasun osoak nai izan zitun arazo orretan eta ori dala-ta, Aita Santu Paulo III'garrenak aukera izan zuan gure Maixuok ezagutzeko.

Begi onez begiratu zien eta taldeak Aita Santuari boto berezi bat eskeintzea erabaki zuen. Boto orren bidez beuren buruak Aita Santuaren eskuan, eta edozertarako, ipintzen zituzten, noranai bialduak izateko. Pobrezi eta garbitasun botoari beste au erantsi zioten eta boto onetan datza Jesus'en Konpañiaren bereiztasuna.

Talde osoak Erroman lan egiten zuan, bakoitza bere aldetik, baiña mai-tasunean alkartuta eta Iñigo'ren gidaripean, bera bait zuten "guztien Aita". Berak landu eta alkartu zitun. Aurrerantz, ordea, bakoitza bide berriren batetik alde egin bearko zuela ikusten zuten Aita Santuaren gogora. Bat eginda zeuden aiek laister zabalduko ziran bakoitza bere bidetik.

Amar lagun. Amarrek onartu zuten euren artean osatutako Jesus'en Konpainia, Lagundia.

Burua aukeratzea

Erabakita zeukaten guztien artean buru bat aukeratzea. Sakabanatzen asita zeuden Aita Santuaren naira eta Xabier India-bidean. Egun batzuek otoitzean eta ausnartzean pasa ondoren, bakoitzak bere botoa eman zuen; guztiak Iñigo'ren aldekoak. Iñigok, beriz, geien izan zuanaren alde eman zuan berea. Botoa "Iñigo" izenez izenpetzen du. Ordurako, ordea, Iñazio esaten zioten geienetan.

Xabier alde eginda egon arren, bere botoa utzi zuan Erroman Iñigoren alde eta onela zion: "berak, eta ez neke gutxiz, bildu gaitu guztiok". Gai-

ñera Iñigoren ondorengo Fabro aukeratzen zuela adierazten du. Fabrok, berriz, Xabier aukeratzen du Iñigoren ondorengo. Orra Paris'ko gela batean alkarrekin bizi izandako irukotea: Iñigo, Xabier eta Fabro. Irurak bat.

Botoa eman ondoren, profesioa egin zuten Konpañian. Xabierrek berea Goa'n egingo du 1543'garren urtean.

Kostituzioak

Konpañia onek oiñarrizko Legedi bat bear zuan, beste Lagundiak zutenaren antzekoa. Iñigok bildutako legeak beste Paris'ko Maixuen eskuetan ipiñi zitun, eurok zuzendu eta onartzeko.

Xabier Indietara joana zan eta besteak ere sakabanatuta zebiltzen. Ez ziran guztlok batera etorri, tarteka baizik eta taldeka. Polanko, Iñigoren idazkariak onela dio Xabierrer idatzitako arazo oneri buruzko idaztian:

"Gure Aita Maixu Iñazio erdipurdi dabil osasunez, alaz ere espero dut lagunduko diola Jainkoak Konpañiaren kostituzioak eta ordenamentuak burutzen eta sendotzen; eta beraren laguntza bitarteko, itxi gabeak gelé ditzen dira oraingoz, gauza asko bizitzaren esperientziarekin ausnartuta gero, sustrai sendoak toki askoetan izan arteko guztian".

Irikita zeuden oraindik Xabier eta Iñigo ilda gero ere.

Indietara bidean

1540 urtean, iraila. Konpañian emandako botodunak amar ziran: Fabro Parma'n, Laínez Piacenza'n, Bobadilla Ñapoles'en, Rodrigues Siena'n, Salmérón eta Codure Eskoziara joateko asmotan Aita Santuaren borondatez. Une aretan Portugal'eko erregeak amar mixiolari eskatzen ditu Indietarako. Iñigok ezetz, geiegi zirela. Aizkenerako Aita Santuarekin bi bialtze-kotan gelditu ziran: Siena'ko Rodrigues eta Ñapoles'etako Bobadilla.

Bobadilla gaixotu zan eta bere ordeztu beste bat aukeratu bear. Aukera ori egiteko Iñigok iru lagun zitun berekin: Jay, Broet eta Xabier. Berak Xabier ezagutzen du beste biak baiño geiago, auek Fabrok aukeratu bait zitun Lagundirako eta onela esaten dio bere lagun maiteari:

— "Badakizu, nere anai maite Maixu Franzisko, guretako bi lagunek Indietara pasa bear dutela Aita Santuaren ordenaz eta aita Bobadilla, orretarako aukeratua, gaixo dagoela. Erabakia presa guztian artu bear da, enbajadoreak bere negozioak atzeratu ezin ditulako; beraz, Jaunak zu aukeratu zaitu lan orretarako".

— "Bai, aita, emen naukazu edozertarako prest". Xabierrek erantzun.

Orrenbestez jantziak txukuntzera eta Aita Santuaren onespina artzera joana da. Geroago Jaunari egiteko botoa idatzi; baita lendakaria aukeratzekoa ere. Oiekin batera, Kostituzioak onartzea. Iru idatzi. Oiekin bere gogoia pakeratu...

Bigaramonean irten zuan Erroma'tik Loreto'ra Lisboa'rako bidean, enbajadore-taldearekin batera. Bitartean Rodrigues'en ordeztu Paulo de Cameri-

no italiarra izan zuan lagun biderako. Lisboa'n bederatzi illebeta igarota, irten zuten itsas-ontziz Indietara.

Urtea 1541, apirilaren 7'an (35 urte betetzen zuen egunean) irten zuten; Monzabike'n negua pasatzera beartuak izanik, urrungo urtearen (1542) udaberrian eldu ziran Indietako Goa urira.

Bien bitartean Aita Santuak Konpañia onartu zuen; baiña, egun artan iru lagun besterik ez zeuden Erroman. Beste guztiak munduan zear banatuta. Sakabanatze onek miñak sortzen zitun biotzean, Paris'tik asi eta Erroma'raiñoko bide danetan alkarrekin bat eginda bizi izan ziran Maixu aieri.

Ñaiz eta Iñigo zaarren izan eta beste guztien elkartzaille, euren arteko arremanak oso ziran maiteak eta lagunartekoak. Araoz, Iñigo'ren illoba, Erroma'ra eldu zanean ate-joka, Xabier zegoen ate-zain eta iriki zionean, onela ots egin zion Loiola'koari: —"Iñigo, emen dek Araoz". Lagunkidetasun orrek biotza ikutu zion, Iñigo etxera eramatera zetorren Araoz illobari. Senideen aginduz zetorren eginkizun ori betetzera; baiña, gauzak ez ziran neurri orretan bete, alderantziz baizik, bera gelditu bait zan betirako Iñigo'rekin.

Eskutitzak

Iñigo Erroma'n utzi eta berak alde egiteak zauritu zion biotza Xabierri. Ondotxo zekian Iñigo'k ori, eta bidean dijoazela, Bolonia'ra idatzi zion karta bat. Zer poza Xabierrena eskutitz ura artzean eta onela erantzuten dio: "zenbat poz, atsegin eta alaitasun jaso ditudan zure kartarekin Jainkoak bakarrik neurtu lezazke".

Alkarretik urrutian, alkar geiago ikusteke, bizi bearco zutela betirako pentsatzeak, biotza jaten zion maixu naparrari: "lanik ez danean alkarrengan pentsa bear dugu guztiok eta gure arazoen berriak alkarri eman eskutitzen bidez...".

Lisboa'tik irtendako egunean (1541-IV-7) onela idazten dio bere lagun, aita eta maixu zan Iñigo lagun maiteari: "Indiatara idatziko didazunean, lagun guztien berriak banan-banan eta oso luze eman, nik orrela zortzi egunetarako irakurgaiak izan dezadan; nik ere orrenbeste egingo dizut...".

"Societas amoris": "maitasunezko alkartea" deitzen zion Xabierrek euren arteko Lagundiari eta orrela izatea, lagun denak sakabanatuta izan arren, eskutitzek lortu zuten. Iñigok Erroma'tik millaka karta idatzi zitun lagunentzat eta auenak artzea izaten zan zorabiozko poza, batez ere Xabierrenak ziranean. Orduko korreo ez zan abioiez egiña: bi urte luze bear zituzten Xabierren eskutitzak Iñigo'ren eskuetara elduko balira. Alaz ere ez zuten bidean ezetasunik eta freskurarik galtzen karta oiek, "el hijo menor en destierro mayor" izenpetutakoak.

Beti Iñigo'ren berrien zai eta artutakoan, belaukiko irakurtzen zitun lerro aiek, begietatik negarra zeriola. Lanez eta arazoz menperatuta ibilli arren (mixiolari, Orienteko Aita Santuaren Ñunzio eta Ego-afrikatik Japonera bitarteko Konpañiaren probinzial nagusia) gizon arrek tartea arkitzen zuan eskutitz oso luzeak idazteko... umetxoeri dotriña erakutsi eta lepradunak sendatu ondoren an egoten zan zai-zai noiz korreoak kartarik ekarriko ote zion.

"Ñere benetako aita", "nere Aita Kristo'ren erraietan" deitzen dio Iñigo agurtzean eta amaitzeko beti aizkeneko itza "lagun" eta batez ere "seme" izaten da.

Zer maitasun zioten alkarri bi euskaldu auek eskutizetan nabari da, naiz-eta lurperatuta egona izan, naiz-eta eurak bere emozioak gordetzen iaioak izan. II-aurretik, 1552'an, onela idazten dio Xabierrek Iñigo'ri: "Zure ainbat itz eder eta gozoen artean, auek irakurri ditut gozenak: Zuretzat osorik, iñoiz zurekin aaztu eziñezko Iñazio; oiek malkoz irakurri ditut eta malkoz idazten ditut orain, lengo denborak gogoratuz, ainbeste maite izan nauzu eta orain ere maitatzen nauzu...".

Amar urte orrela pasa ondoren, alkar ikusteko irrikatzen zeudela, Xabierrek argi eta garbi esaten dio Iñigo berak naiko balu, obedienziaren bitartez, alkar ikusteko aukera izango zutekela: Iñigok Erroma'ra joateko agindu eta berak obeditu...

Aizkenean, orratio, Iñigok ots egin zion Urrutietako Ekialdeko berriak Xabierren aotik zuzenean jakin aal izateko. Aantziz itxarotako agindua eldu zan Indietara; baiña ordurako Xabier ilda zegoen bi urtetik eta eriotzaren berriak ere beste bi urte bear izan zitun Erroma'raiño eltzeko... Indietarako bideak artu zituanean, orixe zan Xabierren bildurra: ez zutela geiagoko alkar ikusiko, alegia. Bildurra, egi biurtu; ez zuten mundu onetan aukerarik izan alkar geiago ikusteko.

Ez al zeikean Iñigok beste bietako bat blaldu Xabierren orde? Bai, bere esku zegoen zein bialdu; bazekien, ordea, berak lan zail eta gaitzura ez zuela iñork beteko Xabierrek baiño obeto. Bere bizia zearo aldatzeko grazia Iñigo'ren bidetik etorri zitzaion Xabierri eta aren ardurapean egin zitun onek Indietara joan aurreko urte guztiak. Alkarren artean orrelako maitasun sendoa sortzea ez da arritzeko. Beste bizi-arrazoibide batzuk egon zitekeen bien artean; esate baterako, biak ziran euskaldunak eta biak gelditu ziran gazteerik umezurtz. Gazterik galdu zituzten aita-amak... Dana dala eta dena den, alkar orrela maitatu arren, ez zuten alde egiteko eta bein-betirako alde egin ere. Jainkoaren maitasuna maitasun guztien azpitik eta gaiñetik.

Iñigo, Konpañiaren buru izendatu zuten ezkeroz, lanpetua bizi zan eta arazo ugari eramaten zitun aurrera; baiña, artarako indarra ez zan gorputz gazte eta sasoiko batengandik sortzen zana, ez; gorputzetik makal zebillen, soiñeko indarrak gutxitzen zijoazkion. Soiña makal, gogoia ordea indartsu. Bere idazkariaren bidez idatzitako karta luze batean, eraskin au ipintzen dio bere eskuz: "para que sepáis que estoy vivo en la miseria de la triste vida": "miserizko bizimodu tristeia" ez zan aitzaki bat alperkerian egoteko. Eskutiz orretan bertan, Polanko'ren eskutik, berri asko ematen dizkio: Santa Maria de la Strada'n, euron etxean, zeramaten bizimodua; Colegio Romano zeritzan ikastetxean, berak eraikian, bosteun ikasleekin egiten ziran lanak eta baita beste ikastetxeetan eramaten zana:

Tivoli, Ñapoles, Ferrara, Bolonia, Venezia, Padua, Messina, Palermo, Trento, Ingolstadt, Viena, Colonia, Lovaina, Paris, Portugal eta Espaiña'koetan. Arazo oiek guztiek nekeak sortzen zioten guztien buru zan lñigo'ri. Alaz ere "miserizko bizimodu tristea" zeraman gorputza, naigabez betea zeukan. Ilzanean, autosiaren medioz, jakin zuten zenbat arri zitun gibelean bezala gultzurdiñetan ere...

Itz oiek idazten dion egunean berean, Xabierrek ere lñigori idazten dio Cochindik: "Yo estoy lleno de canas... Con esto acabo sin poder acabar, escribiendo a mi padre y hermano tan querido y amado": "Illea zuritu zait... eta orrenbestez emen nago ni amaitu bear eta amaitu eziñik, zuri idazten nere biotzeko kutuna zeran aita eta anaiari".

Idatz luze orrekin beste motzago bat bialtzen dio lñigo'ri berarentzat bakarrik eta bertan agertzen dio, ze gogo bizia duen alkar ikusteko eta eskatzen dio milagrotxo bat egiteko orrela gertatu dadiñ: zuk agindu (orrera joateko) eta nik obeditu (joanez).

Xabierrek berak era baditu bere tristurak barnean: "Ya pasó el tiempo en que deseé vivir más que ahora": "bizi izateko gogorik izan dut geiago garai batean gaur baiño". Il-aurreko kartan idazten dizkio itz oiek, bere aizkeneko eskutitzean. Alaz ere, ez dio lanari etsiko il-arte. Orduan bakarrik, atsedena. Bitartean ilusio aundienakin ematen dizkio Japoi, Txina eta Indietako berriak; baita bere iritsiak ere Konpañiari buruzkoak: naiago ditu gutxi eta onak, epelak eta gutxirako direnak baiño ugariagoak izan arren. Oso-osoak bear dira eta ez erdipurdikoak...

Esana degun bezala, lñigok Europa'ra etortzeko baimena eman zionean, Xabier illik zegoen bi urtez. Penak eta naigabeak biotz guztietan azitzen dira mundu onetan; lñigo eta Xabierren bizitzak ez ziran larrosa kolorekoak izan.

Xabierren eskutitzak Europa'n zear

Xabierrek, beste lagunek bezala, lñigo'ren agindura eta berari bere biotzak agintzen zion naiera, tarteka-tarteka eskutitzak idatzi zizkion bere lagun eta aita loiolatarrari.

Karta auek Europa osoan zabaldu ziran ospe aundiz.

Oien kopiak Portugal eta Espaiña'ko Korteetan, Trento'ko Konzilioan, Paris, Colonia eta Coimbra'ko Ikastola Ñagusietan irakurtzen ziran. Izan ere Urrutiko Ekialdeko berriak berez ziran lilluragarriak. Baiña, Xabierren biotzeko goi-maitasunezko garrak, bere urratsak segitzeko egiten zitun deiak ere bazuten euren arrakasta.

Oietako iru idatzi Paris'en 1545'garren urterako argitara emanak ziran bertako moldetegi batean. Onelakoak esaten zizkien ikasle eta irakasleeri: "Gure alde auetan gizaki asko gelditzen da kristau egin gabe, lan santu auek egitera ortik onera jenderik ez datorrelakoz. Banago oietako ikas-tetxeetara joateko, Paris'era batez ere, Sorbona'n santzoka asteko zoro baten antzera, ikasteko gogo geiago bait dago, ikasitakoekin frutua atee ratzeko baiño...".

Ausnartuko baluteke, ikasten ainbeste saiatzen diran oiek, zer kontu eman bearko duten beuroen jakinduriagaitik, egingo lituzteke eskeintza oberik, Jainkoaren miserikordia lortzeko.

Xabierrek bazekien, garai batean bera ere tarteko zalarik, Ikastetxe oietan ari ziranak besteen onerako baiño beuroen probetxurako lan egitez utela, gerora ospearekin, dirua eta agintaritza lortzeko asmoetan. "Buru-gabeko biozkadak" deitzen die orrelako gogoetari Asia osoan galdurik zebillen Unibersitateko irakasleak. Bera millaka ta millaka kilometro egiñez bakardadean eta lanez zapalduta eta bien bitartean klerigo eta apaiz-multsoak alkarrekin eztabaidan burukeri utsak ziren gauzeetan; okerrago oraindik, ospea eta aginpidea diruarekin lortzeko ekintzeetan...

Aietako karta batek lortu zuan lñigo'k bere lanez lortu ezin izan zuena, Ñadal Konpañira ekartzea, alegia.

Urrutiko urratasak

1541'garren urtean Lisboa'tik irten eta lau urtez, 1545'ra arte, Indian ibilli zan: Goan, Ceylan'en, Cochin'en eta ingumarietan.

Andik Urrutiragoko Ekialdera jo zuan Santo Tomé Meliapor'eko zeritzan errira: 1545'ko maiatzean eldu eta 1547'ko abendurarte bertan egon. Garai onetan antolatzen du Japonerako bidea; baiña, bien bitartean, Indietara dator berriro eta 1549'ko ekainaren 24'an Malakatik artuko du itsasontzia Japonerako, Kangoxima deritzen irira.

Bi urte t'erdi igaro zitun Japon'en eta 1551'eko azaroaren erdialdera Singapur, Cochin eta India ikusi ondoren Malaka'tik irtengo du berriro, baiña oraingoan Txina'ra.


Zergaitik Txina'ra? Bere ibillaldi aietan, Txina zala kultura guzti aien sus-traia, konturatu zan eta bertatik asi bear zala erri aiek kristautzeko. Orretxegaitik zijoan Txina'ra.

Malaka'tik uztaillaren 15'ean (1552) irten eta abustuan elduko da Sanchon'era. Ugarte batzuek dira Sinchiang ibaia itsasoan murgiltzen dan kosta-aurrean, Canton'en inguruan.

Gaixorik eman zuan bere azken Meza azaroaren 21'an eta abendua-ren 3'an ilko da Sanchon'en, Txina'ren aurrez-aurre, bakardadean, sakramenturik gabe, Aita Santuaren onспенik gabe... Zerua goian, lurra oinpean: 1552.

- 46 urte eder zituen.

Anes Arrinda





EUSKAL-ERESLARI BIKAIÑAK: RABEL

Musikalari ospetsu oni buruz, Prantziko aldizkari baten, galdera auxe irakurria degu: "Basque ou Suisse?" Euskalduna ala suizarra? Ta erantzuan idazlariak dionez, suiztarrak oso-osoan beren odolekotzat daukate, Rabel'en gurasoen gurasoak Suiza'n jaiok dirala-ta. Aita ere suizarra zan, bai. Ama, ordea, euskalduna: Donibane - San Juan de Luz - ondoko Ciboure erritxoan jaioa. Joseph Rabel eta Mari Deluarte ziran bere ize-nak... Ezkondu aurretik, aitari, bidegille jakitun baitzan, Españara etorri bearra gertatu zitzaion, eta Gastelerriko Aranjuez aldean trenbidegintzan ari zala, ezagutu zun, nun bait, gero bere emazte izango zan euskotar andre gazte ta liraiña. Urtebetegarrengo ezkondata zeuden. Eta beren lenbiziko frutua munduratzeko zala oarturik, emaztearen jaioterrira aldatu ziran zorionez: len aipatu degun Ciboure erritxora, alegia, Ciboure izen au, nabari danez, euskal izena degu, idazkeran itxuraldatua dagerkigun arren. Euskeraz, Ziburu edo Zubiburu deituko genioke. Ta auxe izango zan, agian, bere izen jatorra, egoki baiño egokiago datorkiona baita. Donibane bukaeran zubi bat aurkitzen da: ta emendik ibaia itxasoratu bitartean, etxe erreskada luze bat, erpeak uretan sartuta, irriparrez eskeintzen dien izpillu garbian beren arpegi txuriari begira ta begira... Itxasertzean bertan, ur geldieziñak etengabe miaskatzen duan balkoidun eta arlanduzko etxe aundi bat... Ementxe jaioko zan 1875'garrengo Epailla-7'an Maurice Rabel aurtxoa, ezagun ditugun guraso zorionsuen len-semea. Beraz, aitaren aldetik suizarren odoletikoa ba'zan ere, amaren aldetik, eta Euskalerrian jaioa bezela, euskaldun degu bete-betean, gero-tan ain musikalari bikain izango zan Rabel jaioberria.

Rabel gaztaroan

Ziburu'ko etxetzar ontan etziran luzaro bizi izan Rabel pamilikoak. Andik iru urtera, beren bigarren semea jaio artean, geien ere. Geroztik, aita Paris'era aldatua izan baitzan, bertara joan bearra izan zuten pamiliko guztiak. Baña, Rabel txikiaren gogo-barnea, bere seaskatxoa kulunkatu zun itxaso arexen, lurralde arexen, egurats arexen edertasun zoragarrian bein ta betiko tinkatua-edo gelditu zan. Urtero urtero onaxe etorriko baitzan beste jñora baño pozago, bere jaioterriko dantzak eta pelota jokoa ikusirik, itxas-bazter aietako aize osasuntsua arturik eta bere ume-

tako izkeraren musika goxoa entzunik, odoletan zeraman euskaltzaletasuna xuspertu ta indarberritzera.

Ñere ama ere etzan, ziñez, atzera geldituko bere sorterrirako joera ortan, ta, izan ere, onen altzo biguñean entzun eta ikasitako loéabesti goxoetatik-eta xurgatua izango zun, noski, semeak ere Ziburu bazter ikusgarri ontarako gose-egarria, oso gutxi aurkituko bai-ditugu, txikitan eta nausitan, Rabel bezain **amazulo** izan diran semeak.

Musika-zaletasuna, ordea, aitagandik sortu zitzaion Rabel gazteari. Ura ere oso musikazalea zanez, bere gogorik biziena seme bietatik bata, naiz bestea, zein etzitzaión axola, musikalari eginda ikustea baitzan. Maurizi izan zan, koxkortu zaneke, musika-doaí geiago azaldu zituana. Beronek esango digu geroago: "Ume-umetatik atsegín izan zitzaidan neri eresia, nolanaiko eresia ba'zan ere... Ta nere aitak, musikazale oi diran asko baño jakitunagoa baitzan, laister jarri nindun nere ametsik goxoena aurre-eramateko bidetan.

Amalau urte zituan Paris'ko Musika Ikastola Ñagusian pianua, armonia, musikagintza eta abar ikasten azi zanean. Emengo ikastaroak bukatu zituanean, iru urte jarraian, egin zitun alegiñak **Erromako Saria** irabazi al izateko. Baña, ontantxe kukuak oker jo zion, ez bai-zioten baten ere eman, arazo au zala ta etzala, aren Irakasle izandako batzuk makiñatxobat izkanbilla ta zarata atera zuten baña...

Bere izakera ta abar

Jakingarri ditugu, erabat, Rabel'en nagusitako ainbat xeetasun eta ez gijoaz ixilik uztera. Gorputzez oso txikia ta argala zan, soldautzarako ez balio izateko aiñakoa. Begiak bizi-biziak eta zorrotzak zitun: bekokia zabala: zurizkatzen asitako illeak atzeruntz apainki orraztuak: sudurra dexentea: ta belarriak barren aldetik aragitan sartuta bezela. Beti burutsik ibilli oi zan, baña, egunean-egunean txit apain ta garbi jantzita. Errezale amorratua ornen zan: etzun, alare, tabako-orri garestirik nai izaten, merkeenetarikoa baizik: txorta bakoitza garai artan sos bi-edo kostatzen zanetarikoa, alegia. Lagunartean iñori eskeintzen zionean, alaz ere, erdi parrezka, munduan zan tabakorik garestiena zala esan oi zuan... Eta ona zergaitik: Goi-Ameriketean izan zanean, ango tabako-orria gogorregia zala, ta txorta pilloa ornen zeraman berak, an zear igaro bear zitun egunetarako; ta legorreratu zaneke azken-portuan dena erakutsi bear izan baitzun dirutza izugarria ordaindu erazi zioten... "Augaitik —zion irriparrez— tabako-orri auxe da neretzat munduan danik garestiena".

Izakeraz, oso ixiltsua ta bakarzalea oi zan: txit ezagun zituaneekin ezik zabaltzen etzana, ta orduan soillik iñoren lepotik parre egitea ta zorrozki adarra jotzea gogoko izaten zitzaiona... Udaldian, urtero urtero, bere jaioterriruntz etorri bear izaten zun, gorago esan degunez. Baña, azken-urteetan, Ziburu'ko bere etxetzarrera gabe, Donibane'ko ostatu ederrenetakoren batera joko zun... Egunez, orduak eta orduak ematen zitun edo uretan igeri edo ostatuko balkoien baten exerita kai-alderuntz begira ta begira. Gabaz, ordea, berandu arte, ara edo ona ibillaldi luzeen bat egitea gustatzen zitzaion. Esan oi zuanez, neurri-neurritako bizitza egiten zun berak: "berandu oeratu ta berandu jaiki ere..."

Euskera ere poliki egiten ornen zun, ziburutar arrantzale ta pelotariekin-
edo mintzatzen zanean, batez ere. Arrotasunik aundienaz edonun aitortzen
zun, orobat, bere euskal jatorria. Goi-Ameriketara joan zanean, gorputzez
ain txikia, tankeraz ain apaiña ta ixiltsua, musikaz, ordea, ain aundia ta
miragarria zala ikusi zutenean, zorionak ematera inguratu zitzaizkion asko
ta asko... Ondorena, nuntarra ote zan galdetu ornen zioten, israeldarra-
edo ematen baizun, batzuen iritziz.


— Ñi, jatorriaz, euskalduna naiz —erantzun zien Rabel'ek.

— Euskalduna?... Ñuntarrak dira, ba, euskaldunak?— galdetu zioten
berriz ere.

— Euskaldunen jatorria, tamalez, ezta ain ezaguna. Ez ornen daki iñork
nundik agertu ziran. Baña, gizaldi asko ta asko dira, Prantzi be-aldea ta
inguruak bere bizilekutz aukeratu zituztela... Israeldar ba'nintz ere ez nintza-
ke, egiz, lotsatuko: baña ez naz ni israeldarra, euskalduna baizik —aitortu
ziren beste bein ere Rabel'ek.

Euskaldunak, izatez, ariñak, ausarti edo ameslariak, arro-xamarrak,
buru-gogorak eta berekoiak dirala esan oi da. Gure dantzariak, pelota-
riak, baserritarrak, langilleak eta arrantzaleak, euskaldunetan geien eza-
gun diranak alegia, bein burutan sartzen zaiena, su ta gar, jomugaraño
eraman arte atzera egiten ez dutenetakoak dirala-ta... Beraz oietarikoak
izan bear gure ereslariak ere... Ta, ara: akats oiexek ez ote dira, ba, bete-
betean, gure Rabel'en izakeran azaltzen zaizkigunak ere?... Akatsak **edo**
doaiak! Egokiago esateko, akatsak **eta** doaiak naas-maas.

S.O.



EDO-TA

Lokarritz oni buruz egin nai nizuke gaurko idazkitxo au. Andereño batek galde egin zidan geneko batean: —Aizu, aizu... zuk noizik beinka edo-ta lokarritza askotan erabiltzen duzu; nondik norakoa duzu? Galderaren argi-illunak eta tolesak gogoan neuzkan, eta zertxoren bat aipatu ondoren, agur egin genion elkarri. Andik abiakoan, onela esan zidan nere bide-lagunak —aizak, or daukak gai ttiki bat, ire idazkitxo oietako bat osatzeko. Gogoan jaso nuan oarpen ori, ta asmo artu ere bai; baiña nik orduan uste baiño zaillagoa gertatu zait, ezer garbirik erantzutea; bere ortan uztea ere bururatu zait, baiña zimiko alako bat itzatxi zait barruan, ortxe ta ortxe azkureka; azkenik, zerbait erantzutera natorkizu, irakurle.

Egun edo biar. Esaera ontan bezela, zenbat esakunetan sortzen zaigun dalako edo ori: zutik edo zearka, il edo bizi et. a. Baiña ez zaigu beti-beti joku berdiñean agertzen; batzuetan, baiezko erantzunetan agertzen zaigu eta, orduan, ez du ezeren biurririk; baiña beste batzuetan, askotan (Azkue'k dion bezela) aurka-jokuzko ala-moduetan ere bai eta, orduan, ez dator ain garbi bere jatorrean. Beiñ-ola galde au bera egin genion gure maisu zanari, don Manuel Lekuona'ri; eta onek bere jakinduri zuurrean, latiñezko argi-bidez, berdiñ-antzeko erantzun-bearretan, ongi zetorrela esan zigun; baiña aurka-jokuz berezi edo aukeratu bearretan, (latiñez autéaut), olakoetan ala datorrela egoki et. a. Adibidez: noiz egin zenuak zuk... egunez ala gauez; zeñek egin zuan... aitak ala semeak et. a. Beraz, ezbai-jokuz galde egiten danean, orduan bere lekua, ala joku-itzak dauka. Beste gaiñekoetan, Azkue'k bere iztegian dion bezela, edo-ta lokarritzak esan-naiaren agergarria edo luzagarria, edo argigarria adierazten digu; ala-modu ortan erabiltzen dugu. Baiña, baiña...

Baldin-ta, zein-ta. Lokarritz au ere, ta, eta alegia, elkar-jokurako berez dana, esan-naiaren indargarri ere erabiltzen digu. Ona emen ainbeste ta ainbeste esaera: — Zein-ta ona dan, baldin-ta au edo beste egiten ez badu, edo egiten badu... nai-ta nai-ez egin bearrezkoa duzu. Azkue'k, lokarritz oni buruz, esan-naiaren, bizigarri edo zabalgarri, edo olako zerbait adierazteko erabiltzen dugula, esaten digu. Izan ere, esan-naiaren adierazpenak ba ditu bere argi-illunak, bere tolesak, ba ditu bere eziñak edo-ta gutxiegia eta geiegiak, ba ditu bere baiezkoak eta ezekoak; ba ditu maiz-asko albo-jokuak eta beste-aldeak eta zearkakoak, gaiñekoak eta azpikoak. Orra bada...

Edo-ta lokarritz au, nola sortzen zaigun. Aurreko oiekin biz-bat egiñik. Ez da berdiñeko baiezkoen arterako, ezta erabateko aurka jokuetarako ere; bitarteko ortan aukeratzeko edo-ta bereizteko, edo-ta esan-naia obe ki adierazteko. Orrela bada, andereño ark neri egin zidan galderari nola-bait erantzun nai nik; ez nuan bere artan utzi nai; eta zer-edo-zer, argixpiren bat emanaz-edo, edo-ta nere ezjakiña gordenairik-edo... alaxe dijoa nere gaurko erantzuna. Barkatu, andereño; barkatu irakurle.

P. Berrondo



ERDERAKADAK ETA AKATSAK

- 1.— BAJA MEDIKOA artu du kirolariak " (ETB, 91-11-21'ean)
- 2.— "TRATEMENDU MEDIKOA eman bear diete umeei" (ETB, 91-III-4'an)
- 3.— "DEABRUAREN POSESIOA.... GAISOTASUÑ MEDIKOKAK ZIRELA GERTAERAK". (ETB, 91-1V- 29'an) Sendagille esateko ordez, "MEDIKU" erabiltzea, gaitz-erdi da, baiña sendagilleak burutzen duan ekintza adieraztekotan ere, gaztelerazko "medico" izenlaguna erabiltzea, erderakada makurra da. Eta garaia da, noski euskal-senaz landuriko zerbait erabiltzen asteko.
- 4.— "PARTE MEDIKOAAREN ARAUERA, EZ DU ALDAKETARIK IZAN". (ETB, 91-VI-Pean).
- 5.— "BI LAGUÑTZAILE SOZIAL joango dira... LAGUÑTZAILE SOZIALAK sarritan etortzen dira" (ETB, 91-III-4'an).
- 6.— "Kirolariaren PALMARESA ez da ona..." (ETB, 91-III-4'an)
- 7.— ERAKUÑDEEN ARTEKO IÑFORMAZIOA EZ DA EXISTITU". (ETB, 91-111- 26'an)
- 8.— "EGOERA METEOROLOJIKOAK BERDIÑTSU JARRAITUKO DU". (ETB, 91-III-26'an).
- 9.— "RATXA OÑARI EUTSI DIO ERREALAK" (ETB, 91-IV-24'an)
- 10.— "AJURIA-ENEA-KO JAUREGIAÑ IZANGO DA BILKURA" (ETB, 91-IV-29'an). Jauregi ori nongoa dan adieraztekoan, Gazteiz'koa dala esan bear, baiña ez "Ajuria-Enea "Koa. Izena bai-da ori, jauregiaren izena, eta ez nongoa danaren adierazpena. "Ajuria-Enea" jauregian izango da bilkura.....
- 11.— "DEABRUA ERREALA ZELA ESAÑ ZUEÑ". (ETB, 91-III-26'an). Gazteleraz pentsatu ta bururik nekatu gabe, bere ortan esatea besterik ez da. Orixe bai dala erreala balio ez duan euskera.
- 12.— "ERAÑTZUÑA BEAR DUT 48 ORDUTAÑ" (ETB, 91-V-1'ean) Ez du txantxetako lana eskatzen! Izan ere, 48 erantzun eskatzea da ori: ordu bakoitzean erantzuna ematen jardutea alegia. "Erantzuna, 48 ordu baiño leen bear dut ... 48 ordu barru bear dut...."

13.— "OGEI TA ZAZPI ORDUTAKO EBAKUÑTZAREN OÑDOREÑ..." (ETB, 91-V-20'an)

14.— "OÑDAMEÑDI ÑATURALEKIÑ JARRAITUZ... KALTE MATERIAL TXIKI BATZUK EGIÑ DITU... KALTE MATERIAL UGARI SORTU DUTE..." (ETB, 91-V-4'an)

15.— "PREMIA ZUELA OPERATZEA ESAÑ ZIOÑ DOTOREAK" (ETB, 91-V-20'an) Ez itsusiak; ba'da ez ba'da ere, "dotoreak"...

16.— "ISTRIPU BAT ZEGOELA TA JOATEKO". (ETB, 91-V-20'an) Ñola EGOTEN ote dira istripuak eta ez-bearrak, zutik ala etzanda?

17.— "KOÑTZIEN TZIA BERRESKURATZEN ASI ZEN". (ETB, 91-V-20'an) Eskuetan artzeko zerbait ote da "kontzientzia"? Ez al zan ego-kiago, "Kordea etortzen asi... Konortea etortzen asi zitzaion... Ezague-
ra bazetorkion..." edo antzekoren bat?

18.— "ETIOPIA'KO ERREBELDEK UTIMATUMA EMAÑ DIOTE GOBERÑUARI". (ETB, 91-V-27'an)

19.— "GIPIZKOAN OBRAK DAUDE AIÑBAT ERREPIDETAÑ". (ETB, 91-V-27'an) Ñola EGOTEN ote dira obrak?

20.— "FUÑTZIOTAN DAGOEN MINISTROAK ESAÑ DU" (ETB 91-VI-Vean) Ez zigun esan, ÑON eta ÑOLAKO FUÑTZIOTAN zegoan alako jaun ura...

21.— "BAT EGIÑ GAITZALA GEHIEÑ SUFRITZEN ETA GURE BEHAR HAÑDIAGOAN DAUDEÑEKIÑ" (KARITAS, Gotzai-idazkia 91-V-15) Gaztelerazko LA MAYOR necesidad", ez da AUÑDIAGO. "bearrik AUNDIEÑA", da baizik.

22.— "aren EGIAGAÑAKO maitasunaz, zabaldu egin duzu zure Eli-za" (Orduen Liturgia) Eliz-liburuan, Epaillaren 23'ko otoitzean) EgiaRE-KIKO maitasunaz, bear du, ez bai- da ÑORBAIT, -GAÑA eramateko.

23.— "ZUZEN itzazu gaur gure urratsak zure gogoaren. BIDEK" (Onduen Liturgia, eliz-liburua, 1'go asteko Larunbateko eskariak) Askoz garbiago ta ulergarriago legoke onela: "ZuzenDU itzazu... gogoaren BIDEAN". Bestela, berriz, "BIDEK" izatekotan, onela bear du: "okerreko BIDEK ZUZENDU zure gogoaren bidera".

24.— "SUMEN DIA 20 URTEZ LO IZAN OÑDOREÑ"... (ETB, 91-VI-10'ean) Ainbeste aldiz oker erabili izan dute EGOÑ aditza, eta juxtu-juxtu EGOÑ esan bear zutenean, orduantxe ez. Esaldi ortantxe bear zuan LO EGOÑ.

25.— "Bada orduan zenbait hitzen EUSKAL ÑORTASUÑA DEFEN-DATU zuen bezala (Euskaltzaindia'k) 91-IV-26'an artutako erabakian dago). Itzek ez dute ÑORTASUÑIK, nere ustez. Ez al zan obe, JATORTASUÑA, naiz EUSKALTASUÑA idaztea? bestetik DEFEN-DATU baiño itz egokiagorik ez al lezake erabili Euskaltzaindia'k? "Defenda-tu" • itzak ere EUSKAL-ÑORTASUÑA ote du bere barnean?.

26.— "Ez da beharrezko lehengo agiri hartan bezala guk ere hemen zerrenda luzea ESKAIN DEZAGUÑ GURE USTEZ EUSKAL HITZAK

EZ DIREÑEÑA" (Euskaltzaindia'ren agiri bereko erderakada) Zer ez da bearrezkoa? Zerrenda luzea guk ESKEIÑTZEA, edo guk ESKEIÑI DEZAGULA.

Zertarako aipatu dituzte erdal-aitak? Guk zerrenda luzea EGIÑ DEZAGUÑ Gauza biak oso ez-berdiñak dira, gaur geiegi naasten dituzten arren: Euskaltzaindia'ren agirietan ere orrela dagoan arren, erderakada galanta besterik ez da ori: "No es necesario que OFREZCAMOS" eta ori bere ortan euskeratuta: "QUE OFREZCAMOS" = EZKAIÑ DEZAGUÑ". Noiz eta nola erabil dezakegun ikusi bear, ordea!.

27.— "Badakigu batzuk ezinbestean ERABILTZEÑ DIRELA" (Euskaltzaindia'ren agiri berean) Gaztelerazko "QUE SE EMPLEAN = ERABILTZEÑ DIRELA" eta lasai geldituko ziran, euskera eredugarria eskeintzen digutelakoan. Baiña ERABILLI... ÑORBAITEK ZERBAIT erabiltzen DU" eta or ez dago besterik euskeraz, erderakadak baizik.

28.— "Euskaltzaindiak bada hitz hauek eta hauen antzekoak diren beste asko ahalik gutxiena ERABIL DITZATEÑ ESKATZEÑ DIE... IDAZLEEI, eta horien ordeztu JO DEZATEÑ betiko hitz zaharretara". (Euskaltzaindia'ren agiri berekoa)

Zer eskatzen die? Aalik gutxien ERABIL DITZATELA, eta JO DEZATELA itz zaarretara"; edo gutxien ERABILTZEA, eta JOTZEA," eskatzen dizkit oso besterik dira "ERABIL DITZATEÑ" ETA "JO DEZATEÑ" oiek, adibidez Zertarako adierazten die araua? Erdal-itzak aalik gutxien ERABIL DITZATEÑ, eta JO DEZATEÑ itz zaarretara", adierazten die arau.

Gaztañaga'tar Jesus


EUSKERA GARBITZEN


(Campana contra la erderizaci3n del Euzkera)

GAZTELERA	BATUA	EUZKERA
Por orden	Ordenez	Aginduz
Testamento	Testamentua	Azken-naia
Tutor	Tutore	Guraso-ordeko
Propuesta	Proposamena	Asmo-agertzea
Delegado	Delegadua	Ordezkarria
Tramitaci3n	Tramitapena	Bidean ja i
Defensa	Defentsa	Aldeztea-Zaintzea
Exclusivamente	Esklusiboki	Bakafik
Título	Titulua	Izen-buru
Capítulo	Kapitulua	Atal-buru
Artículo	Artikulua	Atala
Apartado	Apartatua	Atal-zati
Competente	Konpetentea	Gai; egoki
Declaraciones	Deklarapenak	Aitormenak
Textos	Testuak	Gaiak
Comentario	Komentarioak	Adierazpenak
Informaci3n	Informazioa	Argi-bidea
Nomina	Ñomina	Ordain-agiri
Balneario	Balnearioa	Ur-etxea
Cuerpo Médico Especialista	Mediku Espezialistak	Berarizko Sendagileak
Datos	Datuak	ZeaztasunéZertzeladak
Estado civil	Egoera zibila	Gizarte egoera
Teléfono	Telefonoa	Ufutzikiña
Para estar bien informado	Ondo informatua	Ondo itunduak izateko
	egoteko	
Título	Titulu	Ageri-agerkai
Documentos	Dokumentuak	Ageriak - agiriak
Fotocopia	Fotokopia	Idatz-argazki
Libro de familia	Famili liburu	Sendi gutun
Pensionista por jubilaci3n	Jubilazio	Zartzaro sariduna
	pentsiodunak	
Proyecto Estatuto	Estatuto Projektoa	Araudi-gaia
Juntas Generales	Junta Jeneralak	Batzar Ñagusiak
Reforma	Erreforma	Erabefitzea
Referendum	Erreferenduna	E i-galdeketa

Organismo Público	Organismo Publikoa	Efi-Erakundea
Elaborarán (leyes)	Elaboratuko	Eratuko
Actividad Pública	Aktibitate Publikoa	Eh Ekintza
Asamblea	Asanblada	Batzafa
Soberanía	Subiranotasuna	Buru-jabetza
Libremente	Libreki	Askatasunean
Acuerdos	Akordioak	Erabakiak
Comunicar	Komunikatu	Jakin-arazi
Poderes	Botereak	Aginteak
Bandera	Bandera	Iku iña
Enseña	Entseña	Ezauga i
Discriminación	Diskriminapena	Bereizkeria
Delito	Delitu	Lege-austea
Huelga	Greba	Lan-uztea
Disolución	Disoluzio	Ezetzatu
Colectivo	Kolektiboa	Talde
Empresario	Enpresari	Lantegi-buru
Centros	Zentruak	Biltokiak
Empleo	Enplego	Ogi-bide; bizi-bide
Préstamo	Prestamentak	Diru-au etzea
Consumidor	Kontsumatzalle	Erosle
Respetar	Errespetatu	Aintzat artu
Facultades	Fakultateak	Almenak
Estado	Estatua	Latería
Concurren	Konku itzen	Bateratzen
Arbitrariedad	Arbitrakeria	Bidegabekeria
Tradicionalmente	Tradizionalki	Oituraz
Abdicación	Abdikapen	Utzeria

ARBASOEN-IZKUNTZA ZALEAK
JAKINTZA ELKARTEA
E i Euzkera





OLERKI -SARIKETA

Langilleak merezi dau saria; geiago euskal kulturari saiatzen danak. Eta Elbire andereñoa egiz saiatu jakun orretan. Ñik bein eta barrero aurkitu neban bere etxean, Donostiko alderdi zarrean, euskeraz ikasten ebiltzan aur-mordoaz lurrean kukurumixoa, orduak eta orduak. Etzitun olantxe urte gitxi bota. Emakume langillea, beraz, eta gogoratzea merezi dauana.

Euskaltzale danok ezagutzen genduan, gipuzkor, bizkaitar, lapurditar. Bizkaia ezagutzen etorritako ibillaldiren baten Bermeo ta Larrauri artean, Sollube ertzean daukazun Maiñu erritxora jo euskun, eta ango apaiz euskaltzaleagaz, Gotzon Garitaonaindia'gaz adiskide-adiskide egin zan; onek Donostira joaten zanean andereñoa eta umeak ikastera eroan oi nindun, eta euskal irakasleak, il zanean, antxe, Mañu'ko eleiz-ondotxoan nai izan eban bere gorpuari lur emotea.

Euskerazaintzak, Donostiko Aurrezki-Kutxa Munizipalak lagunduta, sari-keta bi beintzat antziñatxu eratu zituan, Elbire Zipitria andereñoaren ize-nekoak. Aurten ospatu ditu Ipuin-Sariketa eta Olerki-sariketa VII'garren urtez.

Olerki-sariketarako emeretz lan eldu jakuzan. Oneik: "Zazpi izarrak", "Bizitzaren ispillu", "Ñire amari", "Irakasleari", "Damuak", "Udabarria amesten", "Bion aterpean", "EAbereen doñuak", "Zugarramurdiko sorgiñak", "Solasean", "Goizetik gaualdera", "Katagorri gorria", "Illunabar bateko oroitzapenak", "Euskera seaskatik", "Sorgiñak", "Euri", "Amaren billa", "Ñola hala gabiltza", "Euskal sena".

Epai-maiko egin ebenak: Arrinda'tar Anes, Zubikarai'tar Augustin, Olazar'tar Martin, Onaindia'tar Jagoba eta Gaztañaga'tar Jesus. Lau sari . emon ziran; lenengoa 40.000 pezeta (Ugarte'tar Martin), "Zazpi izarrak" jaso eben; bigarrena, 30.000 pezeta (Beloki'tar Augustin), "Bion aterpean" irabazle; irugarrena 25.000 pezeta (Urzelai'tar Gaizka), irabazle; eta laugarrena, 20.000 pezeta (Esnaola'tar Anastasio), "Ñire amari" irabazle.

Lau olerkiok banan-banan, sariketa saillean agertzen dira. Zelakoak ete ditugu aitaturiko emeretz olerkiok? Ba-dira onak, umeentzako lau-lau egiñak; ba-dira baita exkas samarrak be, bape zentzun barik moldatuak. Ondo egiñak, txalotzen ditut; besteak ez ditut ezesten, iñoren alegiñak ez bait doguz arbuaiatu bear. Alan be, olerkia olerki da; bere teknika berezia dau. Beraz, olerkitzari ekin nai dautsonak, teknika orrek eskatzen ditun legeak ikasi ta eder-lan ortan jardutean lege orrean

esi barruan jokatu bear dau. Dagianari poesi izena emon nai ba'dautso.

Ñik sarri esan oi dausat santutasuna ta olerkia bide bardíñez dabiltzala, eta arek ez dau olakorik entzun nai. Idazle eta santu askok alkartu izan dabez pentsamentu biok. Or Santa Teresa ta Juan Gurutzekoa, gure barrizatzaile gotorrak. Biblia osoa eder-senez gaiñezka daukazu. Olerkia, dudarik bage, Jainkoak gizonai damotsen aparteko doaia dozu.

Elbire'k ez eban olerkirik idatzi, baiña bizitzan, umeai erakustean, Mañu'ko eleiz-ondoan bere gorpuari lur emon gura izatean, olerkari genduan.

Aita Onaindia

"ELBIRE ANDERENOA" IDAZ SARIKETAK IPUIÑAK

EUSKERAZAIÑTZA'k Donostia'ko Getaria kaleko 21'garrean daukan idazgelan, Agirre'tar M. Dolores, Zubikarai'tar Augustin, Yurramendi'tar Felipe, Gaztañaga'tar Jesus, Zubiri'tar Iñaki eta Kortajarena'tar Andoni jaun-andreak, ELBIRE AÑDEREÑO A VII Ipuin-sariketara aurkeztutako lanak aztertzeko epai-maia osaturik, azterketa sakon bat egin ondoren, sariak era ontan banatzea erabaki dute:

A MAILLA

1'go saria: "Benetako abentura", Ernani'ko Etxeberria'tar Dabid'ek idatzia 15.000 pezta
2'gn sana: "Peruren bidaria", Ernani'ko Galarraga'tar Arkaitz'ek idatzia 10.000 pezta

B MAILLA

1'go saria: "Basamortu ondartsua", Zurriola ikastolako, Arze'tar Amaia'k idatzia 10.000 pezta
2'gn saria: "Basamortu liburua", Urumea ikastolako, Soriazu'tar Alejandro'k idatzia 8.000 pezta
3'gn saria: "Patxiko Basajauna" Ondarroa'ko Txomin Agirre ikastolako, Badiola'tar Nerea'k idatzia 6.000 pezta
4'gn saria (a): "Euskal-Erriko basamortua", Zurriola ikastolako, Gonzalez Arizeta'tar Jon Xabier'ek idatzia 4.000 pezta
4'gn saria (b): "Istoria arraroa", Urumea ikastolako, Iturralde'tar Begoña'k idatzia 4.000 pezta

5'gn saria (a): "Txingurritxoren oporrak", Deba'ko Ostolaza erri-eskolako, Bastida'tar Ana'k idatzia	2.000 pezta
5'gn saria (b): "Sadam Husein eta Maskulu" Deba'ko Ostolaza erria-eskolako, Ansorregi'tar Aritz'ek idatzia	2.000 pezta
5'gn saria (d): "Basamortu aberatsa", Urumea ikastolako, Urkizu'tar Agurtzane'k idatzia	2.000 pezta
5'gn saria (e): "Printzea eta koroea", Urumea ikastolako, Irazusta'tar Mari Karmen'ek idatzia	2.000 pezta
5'gn saria (f): "Basamortua ezagutzeko naia", Urumea ikastolako, Zubillaga'tar Oiana'k idatzia	2.000 pezta
5'gn saria (g): "Afrika'ra bidaia", Zurriola ikastolako, Arroyo'tar Ñaroak idatzia	2.000 pezta
5'gn saria (i): "Arazoak", Urumea ikastolako, Oianguren'tar Maider'ek idatzia	2.000 pezta
5'gn saria (j): "Antigua'ko Ama", Ondarroa'ko Txomin Agirre ikastolako, Badiola Etxaburua'tar Iker'ek idatzia	2.000 pezta

D MAILLA

1'go saria: "Arraunlari boteretsua", Deba'ko Ostolaza erri-eskolako, Agirre'tar Leire'k idatzia	8.000 pezta
2'gn saria: "Itsas abentura", Urumea ikastolako, Larburu'tar Maite'k idatzia	6.000 pezta
3'gn saria: "Maritxuren bidaia", Orixe ikastolako Zabala'tar Josune'k idatzia	4.000 pezta
4'gn saria: "Oiana", Urumea ikastolako, Arana'tar Ainger'ek idatzia	2.000 pezta
5'gn saria (a): "Zorigaitzeko Artzaina", Orixe ikastolako, Badlola'tar Maiak'k idatzia	1.000 pezta
5'gn saria (b): "Itsasoko Itsasorgiña", Urumea ikastolako, Agirresarobe'tar Mirari'k idatzia	1.000 pezta

Epaiketa ontan, aurrek azkenengo leiaketan idatzitako 71 ipuin azertu dira: A maillakoak, 2; B maillakoak, 52; D maillakoak, 17.

Eta gertutakoen aitormen-agiri bezala, aztertzailek agiri au izenpetzen dute, 1991'garrengo loraillaren 28'an.

Olerki sariketa

Aita Onaindia' bere aurreko lanean goratzen ditun olerkiak, urrengo Euskerazaintza'ren zenbakian agertuko dira.

LIBVRVZCIK

JESUS'EN BILLA

Igantlemko gogoetak


AURKEZPENA

Liburu au zer da?

Izenburuko "Jesus'en billa" bi itz oietan adierazi nai izan ditut asmoak eta liburu onen muiña; baita beste gauza geiago ere.

Jesus bera, Aren bizitza ta Aren erakutsi edo irakaspentak aalik ongien ezagutzea da, noski, sinistun dan edozein kristauk egin bear duan gutxien-gutxieneko egiñaala. Kristauak zer jakin beariko ditu, izan ere, Kristo'ri dagozkionak ez ba'dira?

Ori oiñarritzat arturik, gauza bera besteei, —bai sinistunei, bai sinisgabei— ezagutzeraz emateko eginkizuna du apaizak bere gain. Ezagutu-



eraztea ez ba'da ere, ezagutzera ematea, eskeintza egitea, Jesus'en eta Aren gauzen berri ematea: orra apaiz-lanaren muin- muiñeko zerbait garrantzitsua, pozgarri ta aberasgarria bai, baiña aldi berean erantzukizunez astuna ta eragozpenez betea.

Nolabait ere Jesus'en berri ematea da liburuaren elburua. Ñolabait ere berri eman, au da, zerbait bederen esan Jesus'i buruz. Ezer arrigarririk asmatu dugula esateko ametsik gabe, ordea; sakontasun bitxiak aurkitzen ibilli gabe, aalik sotillen.

Jesus'en berri ematea, berriz, azkenik ez duan saiaketa da, ez baidezakegu bere sakontasun osoan ongi ezagutu; askoz gutxiago eman dezakegu Aren osotasunaren berri, ezta osotasunez eman ere Aren berri. Orregatik idatzi dut buru-buruan "billa" itza: au da, Jesus obeki ezagutzearen "billa", eta aldi berean Aren berri obeto ematearen "billa" nabillela, alegia.

Mailla ta alor orotan ez-ezik, aldi ta une guztietan ere baditugu giza eta utsak ugari; geurongan lenengo ta gure inguruan urrena. Ainbeste ta ainbeste dira "ez dauzkagunik", baiña guk bear ditugu -nak eta nai ditugunak, orregatik gabiltza guztiok beti ain larri zerbaiten irrikaz, zerbaiten eske, guban ez dauzkagunen billa.

Orrela bada, mugatuak geranez gizon-emakumeok, gure izatearen muiñean ezarririk daukagu billa ibilli bearra. Egia esateko, ez gera bakarrik: landare ta abereak ere, bizidun diranez beintzat, —bearrak eraginda—, ez dauzkatenen billa dabilta etengabea, oartzeke baiña billaketan beti. Batetik bestera ez ba'dabilta ere, billa ibiltze edo billaketatik bizi dirala esango nuke.

Adimendun eta ezagueradun geran gizakioi, ez dauzkagunen utsunea mingarri zaigun bezain aberasgarri ta atsegin izaten zaigu, billaketaren ondoren aurkitzen ditugun izpiak eta apurrak geureganatzeak ematen digun poza. Guri ere eragiten digu bearrak, ez gutxi eragin ere, eta ondorioz, oartzeke sortzen zaizkigu billaketak; eta mesedegarri zaizkiguke noski.

Baiña oarturik eta jakiñean ekingo ba'genlo billaketa orri era aspergabea, orduan izango litzaiguke benetan giza-maillako ekintzarik jasogarriena. Eta Jesus'i dagokionez, bere betean eta osoan ezagutzea beiñere lortzerik ez daukagunez, geiago ta obeki ezagutzearen billa saiatu bear genuke. Billa ibilli naiz urterik urte: ona emen billaketa ortako urrats batzuk.

Egunkariaren muga estuak

Ñola, noiz eta norako eratuak izan diran esatea ere, bearrezkoa dala iruditzen zait, gogoeta auek beren giroan egoki ulertu aal izan ditzan irakurleak.

Iruña'ko "Diario de Navarra" egunkarian astero orrialde bat atera oi zuten aspaldixotik: 1970 baiño leenagotik noski. Eta lri garai'tar Aingeru il zanean, Garde'tar Martzelino apaizaren esku jarri zuten orriaren ardura 1983'ko Dagonillaren 31'tik. Eta egun artaz aurrera, Garde'k, Oñatibia'tar Dunixi'k eta nik, aal ainbat guztia idatzi bearra leporatu genuan bakoitzak, asteak astea laister bai-du.

Zer gai ar nezakean, asterik utsegin gabe idatzi aal izateko? Ar nezana ar nezala, utsegiteke jarrai-eziña gertatuko zitzaidan, auxe izan ezik: Iganderoko Ebanjelioari buruzko gogoeta laburren bat, alegia. Eta alaxe erantsi nion nere buruari astero idazteko lotura, sei urte ta geiagoan jarraituz. Elkarrekin asitako lanbidean ni bakarrik eta umezurtz utzita, betiko bizitzara joanik ditugu bai Oñatibia ta bai Garde: izan bitzate an zorion betea ta emendik nere eskerronik egiazkoena.

Gauzak onela, 1983'ko Abenduaz asi nituan iB' aldiko Berri Ona edo Ebanjelioen azalpenak, 1984'an jarraituz; urrena 1985'ean 'O' ta 1986'an 'A', orrela iru aldiak buruturik ere aurrera jarraitzeko. Ain juxtu ere goian aipaturiko egunkarian eta beti txoko berean agertu dira astero "Berri Ona" izeneko atal jakiña betetzen dutelarik.

Bigarrengez ere buruturik ditudan arren iru urteak edo aldiak, lenengo txandakoak sartu ditut liburu ontan, utsuneren batzuk bete-bearrez gero egiñak eta tartekatuak izan ezik. Ala ere goi bitxiren bat ikutzekoan, bereziki ezarri dut zein urtetan idatzia dutan, garaiko giroaren lekuko gerta dadin; eta ez dala gerokoa, ikusiaz gaiñera aldaturiko eraskiña.

Gai ibitxiren' bat idatzi ba'dut ere, ez beza iñork uste auskalo zer arri-garri. Iganderoko irakurgaietan Jainkoaren itza xeru-xeru irakurri ondoren, "au gertatu zan"... "ori adierazi nai dute"... besterik esan gabe gelditzeko orde, emengo arazo ta bearretan orain Jesus'ek zer esango ligukean, aztertu nai izan dut. Gaur emen bizi geran euskaldunoi ere argi egin nai digula, alegia; gaurko euskaldun "aurreratuok" ere, argi guztia geuregan ez daukagunez, egiazko bizi-poza ematen duan argia ar genezakeala "atzerrien argi" dan Nazaretarrangandik, bizi dan Maisuagandik.

Bestalde ikerketa sakonak eskeintzeko toki egokia ez da izaten egunkaria, era askotako mugak bai-ditu. Luzeran ez-ezik, gaien erabilkeran eta idazkeran ere badira zenbait muga, astean bein izan arren, nolabait egunerokoaren giroan oreturik joan bear bai-dute idazlanek.

Eta azkenik, oker edo zuzen, baiña egun eta ordu jakiñetetz beranduago epea luzatzerik eza, besteak beste, ez da mugaketarik txikiena. Egia esan, jakiñeko epeak ez du gutxi eragiten, bestela burutuko ez genituzkean lanak egitera, baiña bai ederki estutzen eta beartzen ere gaituala azken-orduan!

Bestetik, luze-laburrean ere estua izaten da muga, jakiñeko lerro batzuen esparru igaro-eziña, alegia. Orrela, bada, ezagun izango dira askotan ere mugaketa ugari oien aztarnak.

Baiña guztia aitortzeko, esan dezadan beste au ere: orain liburu egiñik ematekoan, ez ditudala leen izparringi edo egunkarian agertu bezala, deus aldatu gabe ta beren artantxe ekarri liburura; zenbait ikutu ta orraztu emanda, baizik, garaian garaiko giroari uko egin gabe, ordea. Leengo neurrietatik apur bat luzatu ere bai zenbaitetan, borobiltzeko asmoz.

Egunkarian agertu gabeak ere badira tartean, batez ere Igandez gaiñerako Jaien eta Santuen saillean. Auek luzeago dira, eta eliz-itzaldiak beren osoan ere bai bakan batzuetan, oso gutxi.

Nortzuentzat idatzia dan

Ñere saiaketa-billaketak edo diranak dirala, astero egunkariaren orrietan banatzen ziran Ñaparroa'n barna bereziki, eta oso gutxi andik kanpora. Udazkenean ego-aizeak begirik gabe barreiatzen eta sakabanatzen ditu gure zugaitzen orbel origorrikkak. Alaxe barreiatuturik zitezkean nere jarduntxoak ere iñorentzat mesederik gabe. Orregatik batu ditut orain, eta A, B ta C aldiak, iru sortatan bildurik, liburu eginda eskeintzen dizkiek euskaldun fededunei. Jakiña, idatzi ere beren garaian kristau euskaldunei sinismen-giroko serbitzua eskeiñi nairik idatziak bai-dira.

Ain juxtu ere Jesus'i buruz eskeiñitako jardunak diranez, eta gaiñera Aren berri eman nairik bildutako apurrak izaki, ziur nengoke, iñori ez diotela kalterik egingo; ezta sinisten ez dutenei ere, gogo onez irakur ba'litzate. Baiña zuzen-zuzenean nik gogoan izan ditudanak, —iganderoko meza-itzaldietan aurrean euki oi ditudan eliztarrak ba'lira bezala-Jesus'engan sinisten duten kristauak dira bereziki, iñor baztertu nai ez dutan arren.

Eta guztia euskaldunei eskeintzen diet, euskaldunentzat bai-ditut buruan erabilli ta landu: euskaldunak gogoan ditudala, alegia. Ez neza-kean bestela egin, euskal-orrian euskeraz izaki. Geiago oraindik: ausnartu ta sakondu ditudan neurri apal ortan, euskeraz pentsatuta idatzi ditut, gazteleraz naiz edozein erderatan pentsatu ta idatzi ondoren, euskera-tzera jo bearrik gabe. Buru-errotan euskeraz eioak dira, beraz, eta euske-raz oretuak.

Astean astekoa idazten nuan aiñean, aurreko larunbatean ez bezalako zerbait esatea ez zitzaidan ain zailla. Iru urteren burura, ordea, ez da batere erraza, ez orixe!, gauza ber-berak ez izanik ere, oso antzekoak bein baiño geiagotan atera gabe gertatzea. Eta sinismen-giroko ondori-oak, bizitzarako jokabideak eta kristauon eginkizunak aipatzera sartu ezkeru, nola ez gauza berdintsuetara jo azkenean?

Irakurleei, ordea, igande bakoitzari dagokiona baiño geiagorik, ziur aski, jarraian irakurriko ez dituztenez, eramangarri gerta dakizkieke banaka artuta; au da, asterik aste edo tarteka irakurtzen ba'dituzte, ez zaizkie ain berdintsu irudituko. Izan ere, geroago adieraziko dugunez, iru urteren joa-nean astero banaka idatziak izaki, irakurleak ere egokierarik onena, iru urteren buruan izango du aste bakoitzean bat ausnartzeko.

Ordu askotako egiñaalen emaitza izaki, bide batez beste norbaiti bederen lagundu ba'lezaio ere, or ipintzen dut bilduma au euskaldunen eskuetan. Urterik urte jarraitzera bezala, orain sorta egiñik ateratzera ez dit gutxi bultza zenbaiten eragiñak. Aipaturiko lankide ta adiskide biek lagundu zidaten geiena asiera beretik.

Gerora beste apaizen batek edo bestek ere bai, esan didate pozik irakurtzen dutela astero, baiña oso gutxiren berri iritxi zait, Ñaparroa'n zabaltzen danez eta naparrekin nik artu-eman aundirik ez izaki. Ñork jakin, izan ere, eguneroko baten orriak zenbaten eta zeñien eskutara el-tzen diran? Ñere eskerrik onena aitortu nai diet Jimeno'tar Pedro ta Ape-zetxea'tar Juan apaizei, gogotsu irakurtzen dituztelazko albisterik eldu bai-zait andik edo emendik, eta egia esateko, jarraipen-indarra eman didate.

Bestalde, auxe idatzi zidan batek 1988'ko azillaren 13'an Tafalla'tik: "Zure asteroko Ebanjelioa ere irakurtzen det. Laguntzen dit, nere itzalditxo gertutzen. Jarrai orrelaxe. Beti aurrera!" Goiburu'tar Gotzon Pasiotarraren adiskidetasunezko bultzada zan. Urtea joan eta urtea etorri lan berean jarraitzeak, aspertzeko arriskua dakarrenean, norbaiti bederen idazlanek on egiten diotela jakiteak, poz ematen du. Ea orain apaizetaz gaiñera, kristauengana ere insten diran billaketa auek, eta Ñaparroatik kanpora ere bai.

Liburu au nola erabili

Azalpen au egin bearrik ez dut apaizentzat, igandez igande lan ortan ari diranez gero. Gaiñerako kristauentzat edo apaiz ez diranentzat doaz oar argigarri auek.

Iru zati nagusi ditu liburuak, aurkibidean eta liburua eskuetan erabiltzean nabarmen ageri diranez:

Lenengo zatia: A aldia, Mateo Donearen Ebanjelioa jarraituz.

Bigarren zatia: B aldia, Markos Donearen Ebanjelioa gai dala.

Irugarren zatia: C aldia, Lukas Donearen Ebanjelioa jarraiki.

Aldi bakoitzaren asiera, Eliz-urteaz batera izaten da: "Abendua" izeneko garaia, Azaroaren azkenetan ala Gabonillaren aurrenean asita. Zati bakoitzaren sarreran aurkituko ditu irakurleak, zein urtetako zein egunetan asiko diran Abendua, Garizuma, Pazkoa ta Urteko Igandeak, izeneko aldi nagusiak.

Jarclan bakoitza, Igande bakoitzari loturiko azalpena dalarik, ez dira bata bestearen ondoren jarraian asko irakurtzeko, berez beintzat. Orrela ere egin lezake, noski, ala nai duanak.

Aste bakoitzean bat irakurtzea litzake egokiena, nik esan bear ba'nu. Zergatik? Igandean Mezatarra joatean, zer aurkituko dugun jakin gabe ta ezeren aztarrenik gabe joanda, dana ustekabekoa gertatzen da. Aldez aurretik irakurri ezkerro Igande bakoitzari dagokiona, jakiñean joango litzake mezentzulea; au da, nolabait ere girotuta. Eta orduan atsegiñago gertatzeaz gaiñera, arreta geiago jartzea ere errazagoa da; baita zerbait geiago gogoan artzea ere.

Ñola aurkitu, ordea, Igande bakoitzekoa? Zati bakoitzaren asieran daude garai bakoitzaren zeaztasunak. Azken-orrietan dago Aurkibidea, eta an aurkitzea ere ez da zailla.

Bestetik, oso garrantzizkoa ta gauza aberasgarria da kristauen sinismententzat, Igande bakoitzari dagokion Ebanjelio-zatia ere irakurtzea. Gero Mezatan entzutean, askoz obeto artuko du aurrez irakurrita joan danak. Jardun bakoitzaren asieran dago, zein zati dan, eta ITUÑ BERRIA bere etxean daukanak, antxe aurkituko du zati bakoitza.

Eta besterik ez. Jesus'en inguruko billaketan sartu ditudan orduak on egin didate. Beste edozeiñi ere, Jesusi dagozkion gogoetak egiteak berak egingo dio onik aundiena, gure jardun auek baiño osasungarriagoa. Bide ortan, berriz, norbaiti lagungarri gertatzen ba'zaio bilduma au, pozik baiño pozikago nindeke.

Errezil'en 1991'ko Otsaillaren 18'an.

Erkizia'tar Domingo "Doatsu" izendatzearen urteurrenean.

Gaztañaga'tar J.

URRATS

BASERRIA, EUSKERA, ZINTZOTASUNA...


Amargaren liburua eta orain-arteak baiño mardulagoa argitaratu dauku Paulin'ek.

Bere maitasunik gurenak agertzen dauz olerkariak: Baserria, euskera ta euskaldunen zintzotasuna oñarri dirala.

Baserrian jaioa da eta ikasketak egiten igarotako amabi urteak izan ezik besteak baserritik urrean igaro dauz: Arabako Basabe (Baldegobia'n) lenengo urteak eta gero berrogetak urteak Mungia'n, baseritik urrean, naizta lantegi-giroko usain ona be zabaldua ikusi. Gaiñera azkenengo 17 urtetan Laukariz baserriko arduradun lez egin dau bere lana. Mungia'ko giro atsegingarria itzi barik.

Ez da ba arritzekoa txikitan etxean ikusi ebana eta bizitzan bizi izan dauana bor-bor gaiñeratzea olerkietan. Bakoitxa, norbera eta norberaren inguruak osotzen dau.

Eta eragozpen onek azpiratzeko, euskaldunak egin dabezan alegiñak eta lortu dabezan ondorenak agertzeko eredu lez, gizon euskaldun batzuk agertzen dauz: Arrasate'en lan txalogarria egin eban Arizmendiarrie-



ta, Euzkadi osoan eta erbestean zuzentasuna eta bakea sortzen alegindu zan Alberto Onaindia, eta orreikaz batera Joseba Andoni Aguirre, lenengo Lendakaria. Oneri buruz ikuspegi barria eta egokia agertzen dau olerkariak, bere gizarte-giroko jokabidea, lantegiko arduradun izan zanetik asita. Orduan, oraindiño arlo onetan gauzak beste era batera ikusten ziranean, bera eredu izan zan langilleak jabetasunera eltzeko bideak zabalitzen eta orregaitik bere aldiko baltzu-buru askok ez eben ontzat artzen gero Lendakari izango zan gizon aundia.

Zelako olerkiak diran?

Egunerik egunera doa obarantza Paulin, baserriko umea gizon izatera eltzen dan antzera.

Ezin-ukatuak ditu Paulin'ek euskera garbia ta zuzena, Etxebarriko seme jator bateri dagokiona, neurri egokia eta azken-bardin aukeratuak.

Baiña olerkariari geiago eskatzen jako: "Enthusiasmos" edo berotasuna. Biotza bear dau. Eta onetan zelan dagon? Egia esateko iñongo olerkarik ez dau ori lortzen bere olerki guztietan, batzutan geiago agertzen da, urrengoetan gitxiago. Ba-dira liburu onetako ainbat olerki barruko berotasun ori gorengo maillara elduta daukenak, esaterako, euskeraren edo abade euskaldunen jazarpena aitatzen diranean.

Eta trebebideak?

Barruko berotasun ori agertzeko olerkariak trebe lez agerbide batzuk artzen dauz: irudiak, errepikak, olerkiotsa... Orretan be liburu onek aurrerapena egin dauala agertzen dau.

Irakurle, Iturria emen dago, ur garden eta gozoa dariola... egarri bazara, etorri eta edan...

Olazar'tar Martin'ek

YANOZ ELEBARRIETAN, KONDAIRA IRAKASLE

Erriari irkasteko eta bere biotz-biotzean abertzaletasuna sortzeko naiz bizkortzeko, bide asko dagoz, baiña bide eder eta zabal bat, kondaira irakastea ta bizi-erazotea da.

Kondaira irakatsi eta bide orretatik abertzaletasuna sortzeko era bi dagoz gi-xienez, biak egokiak: Jakingarriak zeatz eta garbi agertzea da bata eta jakingarrien zeaztasunari ta sakontasunari estuegi begiratu barik, aundi-aundiak artu eta barruan dan bizitasuna agertzea da bestea. Eta bigarren bide au oso egokia da, batez be ikasketa sakonak egiten zaleak ez diranak besteen antzeko elburua lortu dagien, erria ezagutu ta maitatzeko elburua.

Bigarren elburu onetarantza jotzen dau, gaur aurketzen dogun Zubiri'tar Iñaki'ren elebarriak. Liburu au irakurten irakurleak poza ta atsegiña aurkituko dauz, liburu eskuetan artu ezkeru itzi-eziña somatzen dauanaren poza. Eta gaiñera irakurketak beragan abertzaletasuna ta barru-min zintzoak, zuzenak eta gizarte-girokoak sortzen dauzala ikusiko dau.

Orain-artean be bein baiño sarriago artu dau bide txalogarri au gure Zubiri'tar Iñaki'k, eta geroago ta arrigarriagoa agertzen da irakurgai ederrak idazten.

Baiña begiratu dagigun zeatzago elebarri au, ez bere aria ta bertako jazokizunak azaltzeko, ori liburuan aurkituko dau irakurleak, alegindu gaitezana beste iakingarri batzuk irakurri baiño lenago iragarten.

Kondaira-elebarria dala esan dogu. Eta elebarri-mota onetan, beste liburu batzuk gogoratu geinkez. Ezin aiatu barik itzi mota beratakoa, baiña erderaz idatzia dan Navarro Vjlloslada'ren *AMAIA* elebarria. Emen Euskaldunen eta Godoen artean izan ziran artu-emonak azaltzen dira ederkiro. Elebarria irakurgarria da baiña barrenean azaltzen dan jokabidea ezin onartu geinke oso-osoa: Godoak eta euskaldunak ezkontza-bidez egiten dabe alkartasuna eta erri barri bat sortzen da alkartze orretatik: "*Amaia da asiera*". Ezin ori onartu, euskaldunak lenago erria izan ziralako eta gero be erria izaten jarraitzen dogulako.

Orretan zuzenagoa ta garbiagoa da gure Txomin Agirre'k bere *Auñamendi'ko Lorea'n* artu eban pentsabidea. Elebarri labur eta eder onek Frankoen eta euskaldunen arteko artu-emonak dauz gai, baiña orretan ez da erri-nasterik sortzen, naizta maitasuna agiria izan, "goikoak goian eta bekoak beian", bakoitza bere lekuan geratzen dira. Eta Elebarri onetan agertzen dan erri-miña benetan beroa ta txalogarria da.

Kondaira-irakurgaien bide orretatik doa gaur aurkezten dogun elebarri au be eta Euskaldunen eta Akitania'tarren arteko artu-emonak dira gai oraingo onetan.

Galdera bat: Izan ete genduan guk Akitania'tarrakaz artu emonik?

Baietz erantzun bear eta zalantza barik. Egia esan, Julio Zesar'en "Galietako Gudaketa" latinezko liburuan oso gitxi agertzen dira euskaldunak, naiz ta gai au iñoz aztertubakoa izan. Ba- dira an toki izen batzuk eta gudari-taldeen izen batzuk gure erria gogoratzen dauskuenak eta Garona ibaiaren izena bera lenengo. Baiña guk ondo dakigu antxiñako akitaniarrak euskaldunak izan zirala eta Akitania'n aurkitu diran latinez idatzitako illobi-idazkietan euskal-izenak ugarj agertzen dirala: Seme, Inko, Eneko, Bela ta Belasko ta abar. Orregaitik ondo esana da elebarri onetan esaten dan au: "Gure izkuntza euskerea da, diñoa akitaniarrak, baiña zori txarrez izkuntza eder au galtzen dago".

Elebarriak argi be argi agertzen dau Adur ibaitik arantza dagoan erria, Euskalerrriaren adiskidea ta senitartekoa izan arren, beste erri bat dala.

Norki euskaldunak eta akitaniarrak asko ta ondo zeaztuak agertzen dira elebarrian. Berrogei inguru bai. Alde bietatik agertzen dira zintzoak eta etoiak, baiña oitura garbiak eta jokabide zuzenak aldeztan dira, oker dagoana oker dagoala zalantza barik ikusten da. Azkenean zuzentasunak egiten dau argi, bai Akitanian eta bai Euskalerrrian. Akitania'ko Dukeak eta Naparroa'ko Errege barriak okerbideak ondo zuzentzen dabez.

Norkien artean eta etxeko lez, adiskide lez, Txartxa deritxon artza gogoangarria dago eta etorkizunerako be beste Txartxa bat geratzen da, abereak euskaldunen lagun doguzala adierazteko.

Eta norki onein artean alkar-izketea ugaria, erreza ta egokia darabil idazleak. Nok ez daki elebarri baten zelako garrantzia dauan alkarizketeak?

Elebarrien barruan beste gai bearrezko bat tokia izaten da eta arlo onetan zeatza da elebarri au, ardura aundia artzen dau idazleak tokia onda zaintzeko. Toki-arloan lau ardatz aurkitu dauz idazleak: Erro-Aezkoa, Irati, Akitania'ko uriburua (500 km. bitarte) eta Iruña. Ba-dira beste urtenaldi batzuk eta ardatz antzekoa da Zuberoa be. Muskaria noizean bein aitatu egiten da eta alkar-izketa askotan inguruaren toki-zeazketak egiten dira, arlo zabalagoa artuta.

Kontuan artu-bearreko beste gai bat aldia da eta aldiagaz gaurko elebarrigileak trebekeri aundiak egiten dabez. Elebarri onetan ikuspegi bitatik begiratu geinke aldia: Bata zein gizalditan kokatzen dan elebarria eta bestea, jazokizunak betetzeko idazleak artu dauan aldia.

Naparroa'ko lenengo Erregea izan zan Iñigo Aritza'ren aldian jazoten da dana, 824'n urtean izan zala ori agertzen da elebarrian. Ori baiño ogei bat urte lenago asten dira jazokizunak eta Errege-Barria koroatu eta laster amaitu.

Aldia zeaztasun aundiaz daroa idazleak, tokia baizen zeatz eta argi. Noizean bein, elebarriaren trebetasunak eskatzen dauan lez, aria ebagi eta atzeratu egiten da, barriro arira etorteko eta alkar-izketetan lenagoko aldiak be gogoratzen dira.

Aldiaren arazoan, beste au be esan bear da: Batzutan jazoerak astitsu jazoten dirala, esaterako Irati'n igarotako 8 urteetan. Beste batzutan ostera arin, Akitania'ko edestietan esaterako. Aldiaren gogo-ikuspegia edo "sikolojioa" da ori eta elebarriaren eragiña edo "ritmoa" adierazten dau.

Eleberrietako bitxiak zeazketak izaten dira eta orreikaz batera barru-miñak eta irudiak. Ba-dagoz olakoak be elebarri onetan baiña ez ugariegi. Gogoratu otsoaren begiak gabea, edo leopokerraren zeazketa eta abar.

Edeslaria nor dan izan daiteke azkenengo esan nai doguna. Onetan trebebide asko dagoz, baiña idazleak irakurgairik geienean, berak egiten dau edeslari-lana, eta azkenengo ataletan norki bateri izten dautso edeslari-lana egiten. Onek amaitzen dau elebarria.

Ona emen elebarri eder bat, benetan irakurgarria ta atsegintsua, euskerazko elabarririk onenen parekoa. Izango al da bardiña irakurketa amaitu ondoren irakurlearen eritxia.

OLAZAR'tar Martín'ek.

ERDERAKADAK

- Bizkaiko Filosofi-Letra eta Zientzietako Doktore eta Lizentziatuen Kolegio ofiziala. (Bilbao'n, Licenciado Poza, 31).
- Errektorearen dimisioa. (Koldo Gorostiaga'k, Egunkaria, 91, V, 24).
- Amedo poliziak gaur deklaratu du "Brouard" aferaren inguruan. (Egunkaria, 91-V-24).
- Kotxearen kredituan interesetan. (Euskadiko Kutxa. Egunkaria 91-V-24).
- Euskal preso, errefuxiatu eta deportatuak. (Egunkaria, 91-V-24).
- Liburu bat dibertigarri eta fantasiatsua. (Alejandro Ferreira. "Diario Metropolitano", 91-VI-21).
- Influenzien trafikoa.
- Ondorengo amabi "bitxiak", alegiñik egin gabe Banku Iztegiatik eskuratuak dira:
 - Ganbio Buletin. (Boletín de Cambios).
 - Dokumental kreditu. (Crédito documentario).
 - Korbona Aktibo. (Dividendo activo).
 - Data finkora. (A fecha fija).
 - Bankari Balantzea. (Balance Bancario).
 - Moltza Buletin. (Boletín de Bolsa).
 - Gastuen eraketaz. (Con gastos).
 - Bankuko Komenio Kolektiboa. (Convenio Colectivo de Banca).
 - Kupoia kobrura. (Cupón al cobro).
 - Grazia egun. (Días de gracia).
 - Balantza bat faltsutu. (Falsear un balance).
 - Interes konposatu (Interés compuesto).
- Duana eta Portu Hauetatik mundura Herri klaseak hiltzeko armak exportatzen dira. (Por este puerto y por esta aduana se exportan las armas con las que matan a las clases populares). (Kaia-LAB Portulariak, Sintravi).
- Kale aurkibide Alfabetan. (Urrutizkiñetako orrialde urdiñetan).
- Kartzeletako emakumeak bostengatik geiagotu dira, gizonezkoak irugatik. (Telenorte'k, bere euskerazko saiotxoan).